

# Arrasate

1996ko  
abenduak 5  
343. zenb.



## Harrobiak

Hiru daude itxita eta beste hiru lanean: Kanpazar, Kobate eta San Josepekoa. Kareharria ateratzen dute, hormigoi eginda edo obretara zuzenean.

30 GALDERATAN: IGNACIO LAKUNZA ♦ KULTURA: MERTXE PLAZAOLA  
IRITZIA: ROSA DE LA ASUNCION ♦ IKUSPEGIA: JOXE RAMON AGIRREURRETA

**Eguna:** Abenduaren 14a  
**Ordua:** Arratsaldeko 4etan eta 6etan.  
**Tokia:** Amaia antzokia

*Sarrerak aldez aurretik salgai Amaia antzokian  
abenduaren 9tik 13ra arratsaldeko 6etatik 8etara.*

"Pantera Beltza"

**TXIRRI, MIRRI ETA TXIRIBITON**



# Gatz fabrika eta kanjiloi gurpila

**L**eintz Gatzagan, gatz fabrikaren berrizketarako lanek martxa onean jarraitzen dute aspaldi honetan. Hasiera batean, gatz-museoa izango dena berreraiki zen; geroago, hondakinetan zegoen Kobredorlas izeneko eraikina; eta azkenik, gatz manantiala eta ur txarrak ateratzeko galeria garbitu eta kontsolidatu ziren.

Beharbada, gatz fabrikaren berreskurapenean gauzarik deigarriena eta ikusgarriena, gatz-putzutik gatzure ateratzeko erabiliko den kanjiloi-gurpila edo egurrezko errubera erraldoia izan liteke.

Hamazazpigarren mendeko askakizun hau, laster barru, Artabilako errekaostoen indarrak mugiarazita ikusteko aukera paregabea izango



Joxe Ramon Agirreurreta

dute hara gerturaketan diren guztiek. Ura ateratzeko sistema hau gure lurraldez kanpo ezaguna bazen ere, Gatzagan jarri zen modalitate hau, Gipuzkoan bakarrenetakoa izan omen zen. Frantzia aldera jo behar izan da berriki jarriko den gurgilaren proiektua egiteko.

Egurrezko gurgil honek errekaostoen uraren indarra aprobetxatuz, bigarren errubera bat mugiaraziko du. Bigarren hau gatz putzuaren gainaldean jarriko da; leku honetatik, kandiloi-errosarioaren bitartez, ura altzaraziko du.

Gauza ikusgarria izango da 3.60 metroko diametroa duen gurgil erraldoia mugimenduan ikustea. Gurgila errezagoko mugitzeko, presa txiki bat eraiki behar izan

da, ur kolpea indartsuago eta iraunkorago etor dakion gurgil ikaragarriari.

Proiektuan *Arkeolanek* eta Gatzagako Udalak hartu dute parte. Erruberraren elaborazio lana egingo duena, Jesus Etxezarreta oñatiarra izango da. Arotz fin honek zailtasun ugari aurre eginez ibili ondoren, gure miresmena mereziko du berak egingo duen lanak.

Gatzagako Udalaren usteak betetzen badira laster izango dugu egin den lanaren emaitza ikusteko parada. Honez gain, gatzare egiteko lehenagokoei jarraitzen zituzten pausoak ere museo berriaren bidez ikusi ahal izango dira.

Gipuzkoak, lehenagokoari begira jarri den honetan, laster izango du beste erreferentzi puntu berri bat: Gatzagako gatz-museoa. Gure aurretik Aia, Beizama, Errexil eta Zerain ibili dira; guztiok Gipuzkoa barnetik deritzan proiektuak lotzen gaitu, eta, dena ondo atera dadin, ilusioz beterik gaude.

**“Gatzagako Udalaren usteak betetzen badira laster izango dugu egin den lanaren emaitza ikusteko parada”**



**ARRASATE PRESS**  
Argitaratzailea: ARKO (Arrasate Komunikabideak) Azoka kalea, 1  
20.500 ARRASATE (Gipuzkoa)  
Tfnua: 77 05 65. Faxa: 77 09 40

**Laguntzaileak:** Arrasateko Udala. **Zuzendaria:** Beñardo Kortabarria. **Kazetariak:** Maria Agirre, Iñaxo Zubillaga, Maider Egués. **Publizitateak:** Alberto Garro, Kaittin Allende (Tfnua: 77 08 15). **Administrazioa:** Ikeme Altube (Tfnua: 77 08 15). **Disinosa:** Golo Arana. **Kolaboratzaileak:** Ander Etxeberria, Maria del Campo, Iban del Campo, Iñaxo Artola, Rosa Mondragon, Bixante Azkarate, Joxerra Agirreurreta, Juan Luis Azkarate, Aitor Orobengoa, Mikel Irizar, Juan Luis Azkarate, Sabin Arrieta, Eneko Allende, Besaide M. E., Kamelo Unibarren, Fidel Berezibar, Bixente Pagoaga, Amaia Jauregi-Arraburu, Juan Bautista Agorria, Jose Mari Astigarraga, Jesus Larrañaga, Matilde Sainz, Iker Barandiaran, Xabier Letona, Karmele Perez, Kopti, Jon Ozaeta, Birgine Urkiola. **Banaketaren arduradunak:** Jasone Mendizabal-AED. (Tfnua: 77 12 28). © ARRASATE PRESS. **Tirada:** 6.200. **Logo-Gordailua:** 1124/88. **ISSN:** 0214-4654. Frankeo kontzertatua. **Inprimategia:** Gertu Koop. E. (Zubillaga, Oñati). **ARRASATE PRESSek** ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanien eta iritzien erantzukizunik.

**ARRASATE PRESS** paper birziklatuan egiten da.  
**Azaleko argazkia:** Beñardo Kortabarria



## 343. zenbaki honetan

1996ko abenduaren 5ean

Asteko agenda.....	<b>4/5</b>	Orain eta hemen ..	<b>10/11</b>	Kulturaren txokoa.	<b>22/25</b>
Irakurlea idazle .....	<b>6</b>	Txutxumutxuak .....	<b>12</b>	Azoka plaza .....	<b>28</b>
Inkesta.....	<b>7</b>	Asteko gaia .....	<b>15/17</b>	Baserriko lanak.....	<b>31</b>
Astearen erreposoa.....	<b>9</b>	Kirolak jokoan.....	<b>18/21</b>	Ikusi eta entzun .....	<b>33</b>

*Ikuspegia*

<b>Joxe Ramon Agirreurreta.....</b>	<b>3</b>
<i>Euren ikuspuntutik</i>	
<b>Rosa de la Asunción .....</b>	<b>8</b>
<i>Hogeita hamar galderatan</i>	
<b>Jose Ignacio Lakunza .....</b>	<b>30</b>
<i>Aurrez aurre</i>	
<b>Maite Arizaga .....</b>	<b>26/27</b>

<i>Asteko gaia</i>	
<b>Arrasateko hiru harrobiak.....</b>	<b>15/17</b>



San Josepeko harrobia

6

ostirala

■ ZINEA

*Un padre en apuros* Alai zinemari 5etan, 7.30etan eta 10etan.

■ KAFE-KONTZERTUA

Arinka taldearen eskutik, akordeoi kontzertua Aterpe kafetegian gaueko 11etan.

■ BEDOÑAKO JAIAK

12etan etxaflero jaurtiketa; 12.30etan doke txapelketa; 13.00etan luntxa Loramendi elkartearen.

■ 3. MUNDUKO PRODUKTUEN SALMENTA

Harreman taldeak antolatuta, 3. munduko produktu salmenta zabalduko da Sebero Altubeko frantziskotarren lokalean.

■ AKORDEOI LEHIAKETAK

Amaia antzokian 10etatik 3.30etara Nazioarteko lehiaketak, 5.30etan Gipuzkoako Akordeoi Jaialdia, ondoren Semionov eta Rantanen epaimahaikideen kontzertua. SFX Ikastolan 9etan Gipuzkoako Akordeoi Jaialdia.

■ SAN NIKOLASEN BOLO BOLOA

Herriko Plazan, eguerdiko 12etan.

7

larunbata

■ ZINEA

*Un padre en apuros* Alai zinemari 5etan, 7.30etan eta 10etan.

■ BEDOÑAKO JAIAK

9etan etxaflero jaurtiketa; 3.30etan haurrentzako jolasak; 5.30etan txokolatada eta gaztainerre jana; 6etan mus eta briska txapelketa Loramendi elkartearen; 9etan auzo afaria Errastiko jatetxean Murua eta Peñagarikano bertsoariekin.

■ AKORDEOI LEHIAKETAK

Amaia antzokian 10etan eta 4etan Nazioarteko lehiaketaren azken fasea.

8

igandea

■ ZINEA

*Un padre en apuros* Alai zinemari 5etan, 7.30etan eta 10etan.

■ BEDOÑAKO JAIAK

11etan etxaflero jaurtiketa; 12etan buruhandiak; 12.30etan meza; 13etan dantzariak; 13.30etan Gorritiren saioa.

■ AKORDEOI LEHIAKETAK

Amaia antzokian Arrasateko Akordeoi Lehiaketaren amaiera eta azken gala goizeko 11.30etatik aurrera.

10

asteartea

■ ZINEA

*Un padre en apuros* Alai zinemari 7 eta 9.30etan. Ikuslearen eguna.

■ HITZALDIA

Uribarriko jubilatutako etxeko antolatuta, "Historia industrial de Arrasate" hitzaldia arratsaldeko 5etan Uribarrin. Hitzlaria: Isabel Aramendia.

■ HITZALDIA

Emakumeen Asanbladaren antolatuta *Los derechos de la mujer en los conflictos armados* gaiaren gaineko hitzaldia. Hitzlaria: Stasa Zajovic, Belgradoko *Mujeres de Negro* erakundekoa.

9

astelehena

■ ZINEA


*Un padre en apuros* Alai zinemari 7 eta 9.30etan.

12

osteguna

■ ZINEA

*Belleza robada* Alai zinemari 7 eta 9.30etan.



**IBABE  
GARAJEA**

**MEKANIKA, TXAPA ETA PINTURA**

Gesalibar auzoa, z/g. Tel.: 79 99 61 • ARRASATE



Alkoholarekin arazoak daukazu? Agian, "Alkoholiko Anonimoek" lagundu ahal dizute!!

**Alkoholiko Anonimoak**

3. areako Informazio bulegoa (Gipuzkoa) • Tel.: 61 93 38

## ■ 3. MUNDUKO PRODUKTUEN SALMENTA HARREMAN taldeak 3.

munduko produktuak jarriko ditu salgai abenduaren 6tik 15ra Sebero Altubeko frantziskotarren lokalean. Kuba, Sahara, Ekuador, Peru eta Kolonbiako produktuak erosi ahal izango dira.

## ■ AEDko LIBURUA SALGAI

AEDk urtero antolatzen duen "Arrasate Lehiaketak" sariketako 95eko lanak biltzen dituen liburua salgai dago 1.000 ptatan Hire eta Gorabehera dendetan. Liburuan iazko lehiaketan saritutako eskualdeko 23 artisten argazki, diapositiba, komiki, ipuin, bertso-paper eta poesia lanak irakur daitezke.

## ■ MONOGRAFIKOAK

AUKEAK Musakolako kiroldegiko muskulazio gelan eski eta txirrindularitza monografikoak antolatu ditu. Hauen helburua gertu dauden eski eta txirrindularitza denboraldiei begira behar bezalako prestaketa egitea da. Muskulazio gela goizeko 9etatik gaueko 9.30ak arte zabalik egongo da.

## ■ MANIFESTAZIOA

EKBk eta AEK antolatuta, "Eman Euskarari Berea" lemapean manifestazioa izango da Bilbon abenduaren 14an. Manifestazioa arratsaldeko 5.30etan aterako da Sagrado Corazon plazatik. Manifestaziora joateko autobusak antolatu dira. Izena emateko dei egin 77 03 69 telefonora.

## ■ SANTAMASETAKO ESKAPARATE LEHIAKETA

Udalak Santamasak

1996 Eskaparate Lehiaketa antolatu du. Parte hartzeko dendek izena eman behar dute Udaletxean. Erakustepea gutxienez abenduaren 16tik 22ra artekoa izan beharko da. Irudimena, orijinaltasuna, mezu publizitarioaren baliogarritasuna, eskaparatearen kalitatea eta Santamas eta Gabon giroarekin zerikusia hartuko dira kontuan saritzeko orduan. Sariak: 30.000, 25.000 eta 20.000. Sari banaketa abenduaren 22an, eguerdiko 12etan.

## ■ KAIXO URA ERAKUSKETA

Asteartean hasi eta ostirala arte, Monterrongo erakustokian "Kaixo ura!" erakusketa ikusteko aukera izango da ohiko ordutegian. Ur Partzuergoaren saneamendu plana, araztegi baten iharduera eta bideoren bat ikusteko aukera izango da besteak beste.

## ■ LOGOTIPO LEHIAKETA

Aretxabaletako Kurtzebarri Eskolak bere identifikaziorako erabiliko duen logotipoa aukeratzeko lehiaketa antolatu du. Logotipoan Kurtzebarri Eskola hitzak agertu behar dira; jatorrizko bi diseinu aurkeztu behar dira, bata koloretan (kolore nagusia berdea) eta bestea zuri-beltzean; logotipoan mendia irudikatuko duen ikurra agertzea baloratuko da. Logotipoak abenduaren 12ra arte aurkeztu ahal izango dira. Saria 50.000 pta.



## ■ AKORDEOI KAFE-KONTZERTUA

Arinka taldearen eskutik akordeoi kafe-kontzertua izango da gaur gaueko 11etan Aterpe Kafetegian. Arinka taldeak instrumentu desberdinak jotzen ditu baina akordeoia nagusi da.

**Abenduaren 1ean.  
Herriko Plazan.  
Arratsaldeko 7.30etan.**

## GUARDIAKO FARMAZIAK

### Ostirala 6

- 10ak arte: Arnezua. Santamaina
- Egunez eta gauzez: Camacho. Bergara.

### Larunbata 7

- 10ak arte: Ruiz. Maala.
- Egunez eta gauzez: Puy. Bergara

### Igandea 8

- 10ak arte: Ruiz. Maala.
- Egunez eta gauzez: Morales. San Andres.

### Astelehena 9

- 10ak arte: Azkoaga. Ferrerías.
- Egunez eta gauzez: Guallar. Bergara

### Asteartea 10

- 10ak arte: Español. Iturriotz.
- Egunez eta gauzez: Estella. Bergara

### Asteazkena 11

- 10ak arte: Corcuera. Musakola.
- Egunez eta gauzez: Mozos. Bergara

### Osteguna 12

- 10ak arte: Irizar. Erguin.
- Egunez eta gauzez: Camacho. Bergara

## BEHARREZKO TELEFONOAK

### Eritetxeak

- Arrasateko Eskualde-Ospit. . . . . 79 53 00
- Igualatorica . . . . . 79 05 00
- Santa Agedako Ospitalea
- (gizonak) . . . . . 79 39 00
- (emakumeak) . . . . . 79 44 11
- Buru osasunerako zeritua . . . . . 79 90 11

### Gurutze Gorria

- Bergara . . . . . 76 55 76

### DYA

- Antzuola . . . . . 76 62 91

### Anbulatorioak

- Arrasate (Larrialdiak) . . . . . 79 13 57
- Txanda hartzeko: medikuntza
- orokorra eta pediatria . . . . . 77 03 46
- Espezialitateak . . . . . 77 05 78
- . . . . . 77 12 64
- Oñati . . . . . 78 08 52
- Eskoriatza . . . . . 79 98 58
- Arexabaleta . . . . . 79 74 58
- Aramaio . . . . . (945) 45 51 16

### Anbulantziak

- Gipuzkoako ambulanziaz . . . . . 45 87 44

### Udaltzaingoa

- Oñati . . . . . 78 04 11
- Bergara . . . . . 76 14 69
- Arrasate . . . . . 79 14 39
- Arexabaleta . . . . . 79 10 52
- Eskoriatza . . . . . 088

### Ertzaintza

- Arrasate . . . . . 79 71 99

### Suhiltzaileak

- Udal taldea . . . . . 79 09 00
- Udal taldeko suhiltzaile burua . . . . . 79 20 72
- Zubillagako Eskualde-Parkea . . . . . 088

### Matxurak

- Urak (udal zerbitzua) . . . . . 79 09 00
- Elektrizitatea (Iberduero) . . . . . 12 01 62
- Gasa . . . . . 900 40 05 23
- . . . . . 79 78 44
- . . . . . 79 76 78

### Garraioak

- Taxiak . . . . . 79 12 22
- PESA. . . . . 79 14 19

### Hirugarren adinekoendako zentruak

- Iturbide Egoitza . . . . . 79 72 11
- Abaroa jubilatuen egoitza . . . . . 79 81 57

### Kontsumitzailearendako informazioa

- KIUB-OMIC . . . . . 79 51 55

### Monterrongo liburutegia

- Monterron. . . . . 77 01 05

### Irratia

- Arrasate Irratia . . . . . 79 58 77

## ZER EGIN? HURAXE IKASI

**M**utikoetan samurtasuna, sentsibilitatea eta estatikaren zentzua garatzea bezain garrantzitsua da neskatoen jarrera zientifikoa, ausardia eta adorea garatzea. Kontuan hartu behar da, alferrekoa dela neskatoen jostailuen eta mutikoen jostailuen artean bereiztea, izan ere, gizarte honetan egunetik egunera arintzen ari da bi sexuen arteko desberdintasuna.

Beraz, jostailu bat erostean kontuan hartu gomen-dio hauek:

- Jostailu bakoitza adin baterako da egokia.

- Haurraren irudimena eta parte hartzea bultzatzen duena da jostailu onena.

- Begiratu ondo gogorra den ala ez, ertzak arriskurik duten...

- Erosi aurretik aurrekontua jarri eta ez hortik pasatu.

- Ez itxoin Gabonak arte jostailuak erostea erabakitzeko.

- Ez zaio neskato-mutikoa jostailuari egokituko;

eskura izango du jostailua, entretenitzeko, eta ahal bada, hezitzeko.

*Maite Barreña*

## Zuzenketa

Joan den astean Arizmendiari buruz egindako erreportaiko argazki oinean Romero Garciak, Hezkuntza Ministroak, "Medalla al Merito en el Trabajo" jarri ziola aipatzen genuen. Zuzena, berriz, zera da: Romeo Gorriak, Lan Ministroak, jarri ziola domina.

Bestalde, Javier Etxagibel Vitoriana De Espectaculos-eko gerentea da, eta ez Vitoriana Espectaculos-eko.

# Lore

## Lurrindegia

Olarte kalea, 10 • ARRASATE  
Tel.: 79 52 50



# Zubia

## Cinetakoak

*Peltsak • Zapatak • Gorrirak*

Mitarte, 14 Tel.: 79 16 00 ARETXABAETA  
Biteri, 1 Tel.: 79 66 53 ARRASATE

# UGARAN

## jatetxea

Garagartza auzoa  
Tfnoa: 79 76 58  
ARRASATE

# Memesa

## 79 42 22

# BAZAR

TOKI ON

## ELEKTRONIKA

## ARTIKULUEN

## SALMENTA


Erdiko Kale, 7  
Tel.: 79 91 64 • ARRASATE

# Durangoko liburu eta disko azokara joateko asmorik?



**Naia Salgado**  
Ikaslea  
(13 urte)

Ez dut ezagutzen azoka hori, inoiz ez didate horri buruz hitzeggin.




**Aitor Usobiaga**  
Langilea  
(42 urte)

Urtero bezala uste dut aurren ere joango naizela. Umeendako ipuin batzuk eta disko batzuk erosiko ditut joanez gero.



**Leire Iriarte**  
Langabezian  
(22 urte)

Bai joango naiz. Latzen taldearen diskoa erosi nahi nuke eta beharbada Etsaiak-en bideoa.




**Gaizka Lasaga**  
Langilea  
(27 urte)

Asmoa bai baina sekula ez naiz izan eta ez dakit aurren joango naizen.



**Anaitz Lazkano**  
Ikaslea  
(20 urte)

Joan izan naiz baina aurren ez dakit. Jende asko baina giro oso ona egoten da.



**Josu Egiazu**  
Langabezian  
(17 urte)

Bai, iaz ere egon nintzen eta. Diskoren bat erosteko asmoa dut, seguruenik Negu Gorriak taldearena.



**Adoración Martínez**  
Etxekoandrea  
(54 urte)

Ez dut azoka hori ezagutzen, inoiz ez dut horri buruz ezer entzun.



**Aitor García**  
Ikaslea  
(20 urte)

Bai Durangora joateko asmoa daukat. Libururen bat edo erosiko dut baina diru asko gastatu barik!



**Zure OPEL banatzailea ARRASATEN, zergatik joan urrunago?**

**OPEL**

**TAKOLO AUTOAK**

Araba Etorbidea, 3 Eskatu Pabilioia Tel.: 79 05 86 ARRASATE

USTEAK USTE

Amodioa elurretan

**G**auza baten iparramerrikarren bestekoak bagara! Teknologian egurra emango digute, medikuntzan, txiklela jaten eta plastikozko jakiak asmatzen... baina umegintzan epate.

Begiratu zenioten jaiotza kopuruari joan den asteko aldizkarian? Bederatzi. Aste honetan, herriz, sei. Aurreko urteetako sasoi honetako aldizkariari begira egon naiz, eta batzuek besteko jaiotze-kopurua ez da laura ailegatzen.

Normala denez, hazkundeaz harrিতuta, oroimenean bederatzi hilabete egin ditut atzera. Eta zerekin egin dudana topo? Ihauterietan, eta ihauterietan bota zuen elurtearekin. Gogor samarra izan zen elurraren azken bisitaldia, egun batzuk telebista barik ere egon ginen... eta bederatzi hilabete beranduago ume-izurritea. Estatu Batuetan berdina gertatu ei zen orain gutxi, Ospitalak gainezka jartzera arteraino.

Argi dagoenez, sarriago beharko genituzke iazko moduko elurteak munduko herrialde adintsuena izateari uzteko. Ok?

Beñardo Kortabarria



## Emakumeon txanda

Rosa de la Asunción

**E**makumeok: Gure bizi kalitatea eta gure egoera orohar hobetzen lagunduko duen Plangintza egiten ari gara Arrasaten. Emakumearen Udal Kontseilutik bultzatu den Plangintza honen bidez, gaurko gizartean emakume eta gizonen artean dauden desberdintasunak zuzentzea nahi ditugu. Guztiontzat ezaguna da arlo desberdinetan emakumeok desabantaila handia bizi dugula gizonekiko lan merkatuan, gizonaek errazago kontratatzen dira eta gehienetan guk baino kargu altuagoa betetzen dute. Kultura eta kirolean, ari gara piskanaka sartzen, baina ezin dugu ahaztu, prestigio gehien duten ekintzetan ia beti gizonaek agertzen direla oraindik ere. Osasunean, emakumeok izaten ditugun gaixotasunak ez dira sozialki errekonozitzen. Gehienetan, gure

bizkarrean familia guztiaren osasuna daramagu eta askotan gurea baino importanteagoa kontsideratzen da. Aipatutakoak adibide bezala hartuz, beste hainbat arlotan ere berdintsu gaudela uste dugu. Horren aurrean, Plangintza bidez neurri espezifikoak zehaztu nahi ditugu guzti hau zuzentzen ahalegintzeko. Argi utzi nahi dugu, bestalde, herriko emakume guztion laguntza ezinbestekoa dela proiektu hau aurrera eramateko.


Zuetariko askok parte hartu zenuten

“  
Egiten ari garen  
Plangintza, arazoak  
konpontzeko  
lehendabiziko pausua  
izan daiteke  
”

“Azterketa sozio ekonomikoa”ren elaborazioan eta haxe izango da oinarrietariko bat Plangintza diseinatzen. Horretaz gain, beste bide batzuk ere zabaldu nahi ditugu zuen aportazioak jasotzeko: laster batean herrian zehar sujerentzia buzoiak ikusiko dituzue, eztabaidarako foruak antolatuko ditugu, kontaktu pertsonalak mantentzen ari gara (elkarrekin, osasuna eta beste arlo batzuetako profesionalekin, teknikoekin, emakume taldeekin eta abar)...

Guzti hauek parte hartuzera gonbidatzen zaitugu. Egiten ari garen Ekintza Positiboen Plangintza ez da emakumeok Arrasaten ditugun arazo guztien konponbidea izango, baina bai lehendabiziko pausua. Elaborazio lan honetan gai honi buruz hitz egiten hasten bagara, konprometuz batzuk hartzen badira Udaletxean eta herri mailan, bidea egiten hasiko gara. Ea denbora pasatzen den heinean emakumezkoek eta gizonezkoek emaitza berdintsuak izatea lortzen dugun

Rosa de la Asunción,  
Plangintzaren koordinatzailea

 **OPIL OKINDEGIA**  
**DONIBANE-PAPVR**  
**GOZOTEGIA**

Hurbildu zaitetz eta dastatu gure osi eta pastel bereziak!

Inazio Zuloaga, 2 • Tfel.: 79 80 50 • ARRASATE

**BASABE JATETXEA**

Menu eta afariak  
Boda eta banketeak  
Tel.: 79 91 84  
ARETXABAETA



astea bi hitzetan

■ **Itxiera martxa Akei erraustegira**

Zapatu goiza euritsu esnatu zen arren, hogeitabost lagun inguru Seberora hurbildu ziren oinez Akeira joateko. Behin erraustegira iritsitakoan, "Akei istera behartzen zaituzte" idatzita zuten pankarta eskegi zuten bertan. Horrez gain, inguruak zenbateraino kutsatuta dauden ikusteko ikerketa epidemiologikoa egitea eskatu zuten. Erraustegiko langileek ez zuten martxan parte hartu.

■ **Intsumiso arrasatearra atxilotu**

Astelehen goizean Premin San Pedro gazte arrasatearra atxilotu zuten Erztzaintzak. Intsumisoa izanik

joan den asteazkenean epaitu behar zuten San Pedro, baina auzitegira joan ez eta astelehenean atxilotuta eraman zuten. Sei hilabeteko kartzela zigorra eta 14 urteko inhabilitazioa ezarri ostean, epaileak aske utzi zuen gaztea.

■ **Egitarau herrikoia Hiesaren egunean**

Urtero moduan herritarren partaidetza bultzatzeko ekintzak prestatu zituzten Hies Ekimenekoek Hiesaren Nazioarteko egunean. Goizez mahai informatzaileak Hiesaren informazioa emateko, eta arratsaldez giza katea eta antzerkia izan ziren antolatutako ekintza aipagarrienak. Jendeak parte hartu zuen arren, horrelako

ekintzetara beti pertsona berdinak gerturatzen direla aipatu zuten antolatzaileek.

■ **Zimmerman-en kontzertua**

Antzokia ez zen bete, baina nahiko jende hurbildu zen Amaia Krystian Zimmerman pianojolearen kontzertua entzutera.

Kontzertuak bi ordu iraun zuen, eta entzuleak pozik irten ziren antzokitik ederra izan zen emanaldia entzun ostean. Pianojolearen nahia betez, Arrasate Musikalendako izango dira sarreraren bidez lortutako 600.000 pezetak. Akademiako arduradunak pozik azaldu arren, entzule gehiago joanez diru gehiago poltsikoratzea espero zuten.



**AL ANDALUSEKO EGOITZA INAUGURATU**

Igande eguerdian inauguratu zuten Al-Andalus elkartearen egoitza. Arrasateko alkatea, Jose Antonio Maturana, Jaurlaritzako Herrilan eta Garraio sailburua, Jose Maria Gonzalez, Euskadiko Andaluziar Etxeetako lehendakaria eta Andaluziatik etorritako hainbat alkatek parte hartu zuten inaugurazioan.

“ Ez gara ari ezer berria asmatzen, aspalditik On Jose Maria Arizmendiarririk, ikuspegi zabal eta progresista batetik, honela aldarrikatzen baitzuen, Hezkuntza



Kooperatibetan hezkuntzarekin zerikusia zuten estamentu guztiek parte hartu behar zutela, eta horrela bideratu dute gaur egun Hezibide elkartearen barruan dauden ikastetxe guztiek euren antolaketa.

Kooperatiba integraletan partaide desberdinen interes amankomuna bideratzen da. Honela, hezkuntza arloan kontsentzua bidea urratzen du. Sarritan ez da oso erraza izaten, baina partaide desberdinek proiektu honekiko duten konprometuzarekin gaiak aurrera ateratzen dira. Filosofia honetan oinarrituta eramateen ditugu gure ikastetxeak aurrera”.

**JOXERRA ZUBIZARRETA**  
Euskaldunon Egunkaria  
1996-11-28,

Altzariak  
Diseinua  
Apainketa  
**M ARENAZA**

Bizkai, 1 • ARETXABALETA  
Tel.: 79 08 07

**Nerea Bengoa Fdez. de Campinun osteopata**

Zirugia eta medikuntzan lizentziatua GREMMO-en osteopatian diplomatua  
Bizkarreko minak, sorbalda, lunbalgiak, zerbikalgiak, zefaleak, bertigoak...

**Kontsulta Arrasaten, txanda hartzeko deitu 989-58 66 89 tel. mugikorrera (Astelehenetik ostiralera, 9:00etatik- 13:00ora eta 15.00tik 19.00ora)**

**FELIPE MADINA ZURAK**

Zarugalde, 40 ARRASATE  
Tel.: 79 13 78

## Udalak Langain sartu nahi

Langairen zentro laguntzaile izatea eskatu dio Udalak Eusko Jaurlaritzari. Eskabi-dea onartuz gero, Langairen lau zentro laguntzaile egongo lirarteke Arrasaten: Udala, Eskola Politeknikoa, Bastida Akademia eta Mankomunitatea.

Langai enplegatze zerbitzuak, langabezian daudenei eta langile bat kontratatu nahi duten enpresei eskaintzen die zerbitzua. Era horretan, zentro kolaboratzaileak arduratzen dira Langairen datu basean langabetuen kurrikulumak sartzeaz. Zentro bakoitza kurrikulum jakin batzutan espezializatzen da.

## Arrazakeriaren aurkako astea

Gazteei eta umei zuzenduta egongo den arrazakeriaren aurkako astea egingo da urtarilean. Batetik, 7 eta 8 urteko eskola umeendako ipuin kontalari baten saioa izango da. Bestetik, gazte taldeak eta Udala harremanetan ari dira gazteei zuzenduta egongo diren ekintzak antolatzen.

### Jaiotzak

- Ainhoa Inda Tercero. Azaroaren 18an.
- Haritz Ezepeleta Laskurain. 20an.
- Ivan Delgado Gallego. 24an.
- Alaitz Mendizabal Agirre. 25ean.
- Aida Otaduy Vega. 25ean.
- Ane Zubizarreta Pagaldai. 26an.

### Hildakoak

- Fuensanta Gastañaga Gallastegi. Azaroaren 26an. 61 urte.

# Ur zikinak garbitzeko plana erakusgai Monterronen


Gipuzkoako Ur Partzuergoak antolatutako "Kaixo Ura" erakusketa datorren asteartean iritsiko da Arrasatera, eta ostirala arte izango da herrian. Monterrondik bueltatxo bat ematen duzuenok, Ur Partzuergoak aurrera eramango duen saneamendu planarekin zer lortu nahi den jakiteko aukera izango duzue besteak beste.

Etxeetara iristen zaigun ura behin araztegieta garbituta heltzen bazaigu ere, ez da gauza bera gertatzen erabili ostean erre-kara botatzen den urarekin. Hori dela eta, Gipuzkoan 10 araztegi berri eraikiko dira, eta Deba Garaikoa Osintxun jarriko dute. Ur zikina, erre-karen bidea jarraituko duen hobietatik araztegi- helduko da eta behin garbituta erre-kara botako. Toki batzuetan hala ere, ezaugarri orografikoek eraginda, hobi- ezin- go dute erre-karen bidea jarraitu eta kasu horietan lotura berezi batzuk egin beharko dira.

Partzuergoak urarekin dauden ohiturak aldatu nahi du eta kultura berriak zera proposatzen digu: uraren aurreztea eta arrazoizko erabilera, kalitatea eta ingurunearekiko begirunea.

Monterrongo erakusketa aretoan, gainera, araztegi txiki bat jarriko da urtegi- jaso- tzen denetik gure etxeetara iritsi arte uraren garbitze prozesua zelakoa den erakus- teko. Erakuske- tarekin lotu-

ta ere, "Kaixo Ura" izeneko bideoa ikusgai izango da, urarekin zerikusia duen guztia- ren berri izateko. Seguruenez gainera, beste herrietan egin den moduan Arrasaten ere hitzaldiren bat emango du Ur Partzuergoak.



Martintxo, arrantzalearen irudia duen txoria, erakusketako maskota da.

### OBRAREN KOSTUA

Bistan denez obra handia izango da eta Arrasaten, esaterako, lau mila milioitik gora kostako da saneamendu plana egitea. Obra honen kostuaren zati bat (%25) herri- tarren poltsikoek ordaindu beharko dutenez, ur errezi- boari gehitu zaion sanea- mendu kanonaren berri ere ematen da erakusketan. Bes- talde, uraren kultura berria zer- tan den ere azaltzen da. Ur

### Datu bitxiak ere ugari

Bazenekien arrasatear bakoitzak egunean 107 litro ur kontsumitzen dituela? Erakusketan agertzen diren datuen arabera, horixe da kopurua baina beste hainbat datu interesgarri ere agertzen da. Adibidez, hiru minutuko dutxa hartzean 30 litro ur gastatzen direla eta bainua hartuz gero, 130 litro. Uraren kontsumoarekin lotuta ere, Gipuzkoan uraren %40a etxeetako kontsumoan erabiltzen dela, %20 industrian, %10a udal kontsumoan eta %30a ihesengatik galtzen dela esaten da erakusketan. Bestetik gomendioak ere luzatzen dira elektratresnaren bat erostean, adibidez, ur kontsumoa aztertzea, eta komuna zakarrontzi modura ez erabiltzea.

## Udal Plenoa

# Opozisioaren desadostasunaz onartu zuen hirukoak lursail industrialak erostea

Disparate, abentura eta eskandalo hitzak erabili zituen joan den ostiralean alkateak, hirukoak Markuleten lursail industrialak erostea onartu izana kalifikatzeko. Hirukoaren ize-nean, Jose Mari Loiti EAJko bozeramaleak hitzegin zuen, eta lur horietan egingo denaren inguruan pistarik eman barik, Arrasatek lur industrialak behar duela eta denborak arrazoia emango diela esan zuen.

Xabier Zubizarretaren arabera, Markuleteko lursailak oso garesti erosiko dira, eta gainera, urbanizatu egin behar direnez diru asko gastatuko ei da. Markuleten Udalak lursail industrialak badituela, baina azken bost urteetan eroslerik ez dela agertu ere gogoratu zuen alkateak. Horregatik, abenturatzat jo zuen zein



Hirukoak ez zuen pistarik eman Markuleten egin asmo duenaren inguruan.

proiektutarako izango den jakin barik lur horiek erostea.

Erosketaren prozesua nola joan den ere kritikatu zuen alkateak, eta sekretismoarekin ibilt-

zea leporatu zion Jose Mari Loitiri. EAJren bozeramaleak, negoziatzeko aukera Udaleko zinegotzi guztiek dutela erantzun zion. Alkateak, berriz,

negoziatzeko eskubidea guztiek dutela, baina azken momentura arte ezer ez jakinaraztea ez dela normala esan zion.

## Zinegotzi sozialista berririk ez

PSE-EEK ez du oraindik Rafi Romeroren ordezkotzirik aukeratu. Aurreko plenoan utzi zuen Romerok kargua, baina listan hurrengo zetorrenak, Jose Luis Lanak, ez du zinegotzi kargua hartu nahi izan. Angel Rico, Miren Lana edo Esther Fernandez izan daiteke hurrengo zinegotzi sozialista.

## Bi mozioak onartu

HBren, EBren eta EAren aldeko botoekin onartu egin zen Hego Euskal Herria NATOtik kanpo geratzea eskatzen zuen mozioa. Gai honetan EAJk mozio alternatiboa aurkeztu zuen armada profesionalaren eta UEoren alde, baina ez zuen aurrera egin. Senideak-en mozioa ere onartu egin zen HB, EB, EA eta EAJko zinegotzien aldeko botoekin. PSE-EE eta PP, berriz, abstenitu egin ziren.

## Lazo urdina jartzea eskatu eta onartu

Plenoaren bukaeran, PSE-EEK Udaletzeko balkoian bi bahituen alde (Ortega Lara eta Declaux) lazo urdina jartzea proposatu zuen, eta alderdi guztiek, HBk kenduta, lazoa jartzea onartu zuten. Aurrez ere, Aldaia bahituta zegoenean, jarri izan zen lazo urdinik Arrasateko Udaletxean.

### S. CARRASCAL S.L.

#### Bertan egindako:

- Sukalde altzariak
- Armairu enpotratuak
- Trastelekurako armairuak

#### Fabrikaren erakusketa

Gipuzkoa etorbidea, 6 -1.a  
Tel./Faxa: 79 01 82

## ARGI PLASTIC

- PVC ETA ALUMINIOAN EGINDAKO LEIHOAK, MANPARAK...
- LANTEGITIK ZURE ETXERA ZUZENEAN

Eska ezazu aurrekontua konpromezu barik!

Tailerra eta bulegoa:  
Zigarrola, 1-8 pabilloia • Tel.: 77 11 30 • ARRASATE



*Sili Sili*

Martxa eta estilo handiko erropa

Iturriotz, 9 • ARRASATE  
Tel.: 79 81 82

## HAU DA HERRIMINA!

Arrasaten bizi izandako urteak ezin dituztenez ahaztu, joan den zapatuan bazkaria egin zuten Gasteizen bizi diren arrasatearrek. Gasteizko jatetxe dotore batean bildu ziren 88 lagun eta Petra Anduagari, hirian bizi den arrasatear zaharrenari, omenalditxo egin zioten.

Herrimina dutenik ezin ukatu, baina kontuak kontu nahiago dute egun berezi hau Gasteizen ospatu. Bertan gustora bizi direnaren seinale!

97 nafar elkartu ziren domekan Aretxabaletako Taberna Barrin urteroko bazkaria

## NAFARREN BAZKARIA

ria egiteko. San Frantzisko Xabier eguna aprobetxatzen dute guztiak elkartzeko baina aurten abenduaren 3a

asteartea izan zenez, aurreko domeka aprobetxatu zuten. Lagun artean, barre batzuk egingo zituzten bai!



## ZENBAKIA


497

lagun dabilta une honetan euskara ikasten Arrasateko bi euskaltegietan. Udal Euskaltegian 308 ikasle daukate 23 taldetan banatuta; Erdu-AEKn, berriz, 189 dira 18 taldetan. Bien artean maila eta urrats guztiak betetzen dituzte.

## MILA ESKER BITTORI ETA MATTIN

Mattin eta Bittori, Bittori eta Mattin... a ze bikotea! 31 urte eman dituzte Arrasaten eta herrian inor ezagunik bada, bikote hau da: AEDko partaide sutsu, Elkarriko kide, Gau Eskolako irakasle, Mattin taila irakasle, Bittori EKIN Emakume taldearen sortzaile... Orain, Tolosara doaz bizi izatera eta euren lagunek omenaldi afaria egin zieten ostiralean.

Kataiden: guztira 73 lagun bildu ziren eskerrak eman eta agur esateko. Opari gisa emoziozko malkoen artean granitozko traineru bat jaso zuten. Beti arte, bikote!



## DATA

1869ko abenduak 4

“Vergarajauregi, Resusta y Cía” Elkarte komunitarioa sortu zen. Enpresa honek poliki poliki herriko hainbat tailer bereganatu zituen, eta baita Leintz Bailarako beste asko ere. 1906. urteko urtarrilean, elkartze horren ondorioz Unión Cerrajera bihurtuko zen.



*Ikatza ez da  
Gabon hauetan  
jaso dezakezun  
oparirik txarrena.*



LASAGABASTER

*Gabon hauetan ez dezazu imitaziorik onartu.  
Eros itzazu zure Levi's-ak bakarrik denda baimenduetan.*



## KANPAZAR TAILERRAK



### VITARA

**3 eta 5 ate!**

**Suzukik bere gaman turbo diesela gehitu du.**



## Zatoz ezagutzera!!

**Tailerrak:**

Bizkaia etorbidea, z/g Tel.: 79 41 98

**Erakusketa:**

Araba etorbidea, 4 Tel.: 79 77 66



# Arrasateko OSASUN GIDA

## **DENTISTAK**

- ADUR MEDIKU INSTITUTU ODONTOLOGIKOA Iturriotz 35 ..... ☎79 95 60
- ARRASATE HORTZ KLINIKA Iturriotz 17,1 Ezk..... ☎79 72 23
- ARREGI HORTZ KLINIKA zerkaosteta, 19 behea..... ☎79 71 90
- GIPUZKOA ESPEZIALITATE ODONTOLOGIKOETAKO ZENTRUA Iturriotz 7 Bis ..... ☎79 73 88
- IRIARTE IRURETA, ANE MAITE Iturriotz 7, 1º..... ☎79 69 45
- LOPEZ DE GOIKOETXEA (Goiz eta arratsaldez) Alfonso X. Jakintsua, 5 ..... ☎79 17 74
- LORENZO MARTIN, RAFAEL Zarugalde, 3 1.-B..... ☎77 12 63

## **DERMATOLOGIA**

- ROBERTO ZABALA. (Mendia Jauregia) Erdiko Kale, 22-1..... ☎79 72 16

## **FISIOTERAPEUTAK**

- ANDONI ETA MARIA BASTERRETXEA ERREHABILITAZIO ZENTRUA Olarte 43 Bis .. ☎77 03 96

## **GINEKOLOGOAK**

- GINEKOLOGI KONTSULTATEGIA Zerkaosteta,17-Behea ..... ☎79 20 18

## **LOGOPEDIA**

- ARRASATE LOGOPEDIA ZENTRUA Zurgin Kantoi 3-Esk..... ☎79 79 46
- PSIKOPEDAGOGIA ZENTRUA Ignacio Zuloaga 10 ..... ☎79 48 77

## **MASAIARIAK**

- EUGENIO RAMOS Bizkaia Etorbidea, 12- 2 Esk..... ☎77 06 22
- JOSE LUIS ABUIN San Josepe, 10 Behea, D (Kiroldegan ere bai)..... ☎77 01 33

## **MEDIKU-DIAGNOSTIKOAK**

- UDALAITZ MEDIKU-ZENTRUA (Analisi klinikoak, R-X) Ferrerías, 56-Behea ..... ☎79 44 22

## **OPTIKA**

- ARRASATE OPTIKA (Optika, Optometria eta kontaktologia) Kontzeziño,6 ..... ☎79 25 98
- LARRAÑAGA OPTIKA (Optika eta optometria) Juan Carlos Guerra, 1 ..... ☎79 29 95

## **PSIKOLOGOAK**

- TXOMIN NUÑEZ Olarte, 10 ..... ☎79 88 16
- PSIKOPEDAGOGIA ZENTRUA Ignacio Zuloaga 10 ..... ☎79 48 77

## **PODOLOGOAK**

- BARRUTIABENGOA URANGA Pablo Uranga, 6 ..... ☎79 50 75

## **OTORRINOLARINGOLOGIA**


- ZULUETA ETA NAVARRO Dreak (Arratsaldetan). Zerkaosteta, 17 behea..... ☎79 20 18

## **REUMATOLOGIA-BIZKARREZUR TERAPIA**

- GOROSARRI - TROJAOLA Dreak. Zaldibar 1, 1 ..... ☎77 00 40

## **UROLOGIA**

- LLUCH, ALBERTO (Centro Médico Udalaiz) Ferrerías, 56..... ☎79 44 22



**Udalatxeko meategiek lehenengo, Burdinolek beranduago, burdingintzak gero, eta azken urteetan kooperatibismoak eman diote ospea Arrasateri industria munduan. Zalan-tza barik, iharduera garrantzitsuak, baina ez horregatik bakarrak. Herriaren historian motore izan den burdinaren industria ahulduz joan ahala, beste egin-behar batzuk hartu diote txanda. Harrobiko lana horietako bat.**

**S**eguruen ez da inoren aldetik Guinness liburuan sartzeko asmorik izan, baina nekez aurki daitezke hainbeste harrobi Arrasate moduko beste udalerrri batean: sei harrobi 34 kilometro karratutan.

Zergatik? Hasteko harri-piloa ikusteko edo zapaltzeko ez dagoelako ahalegin berezia egin beharrik, makina bat aukera bada. Harria hain azalean egonda, pentsatzekoa da harri hori ateratzeko egin behar den

lana, ez dela ere aparteko zaila izango. Geologiak edo naturak, ikusten denez, ahalbidetzen du industria iharduera hau. Bestalde aipagarria da adituek estimu onean dutela Arrasateko harria, kareharria hobeto esanda, buztinez eta harearriz nahastuta egon arren horixe da eta Arrasateko harrobietako lehengaia: kareharria. Azkenik, historia bera ere aipatu beharko litzateke. Izan ere, itxita dauden harrobien lekukotasunak argi adierazten du herri honen historiaren uneren

baten, harrobi lanak egin zuela bere tokia.

Ustezko zergatiak argituta, harrobien panoramari begirada egitera. Sei harrobi daude herrian, hiru itxita eta beste hiru lanean dabilta. Itxita-koak Etxaluzekoa, Altzaurtikoa eta Santutxokoa. Etxaluzeko harrobia erainkuntzarako materiala gordetzeko erabiltzen da, Altzaurtikoa txatarretarako autoz beteta dago, eta Santutxokoak, ez du

# Harrobiak

funtzio zehatzik betetzen.

Kanpanzar eta Kobateko harrobiak eta San Josepekoa daude zabalik gaur egun.

### KANPANZAR

Harrobi honek Udalatxetik ateratzen du harria. Ustiapenak oraindik 23 urtez jarrai dezake, baina dagoeneko harrobiaren goialdean tope antzera iritsita dago, eta beherantz eta ezkererantz jarraitu beharko du hemendik aurrera. Kareharia ateratzeaz gain, hormigoi zentral bat dute bertan, urtero 250.000 tona atereaz; guztira 6.250.000 tona ustiapena bukatzen denerako. Epe hori iristen denean seguruen inguru ludiko gisara egokitu daiteke Kanpanzarko harrobia, berlandatu ondoren.

### KOBATE

Garagartza auzoan dago Kobateko harrobia. Eta egoera ekonomikoak edo enpresaren erabakiren batek kontrakoa esaten ez badu, oraindik beste 55 urtez egon daiteke bertan. Besteetan bezala, harrobi lanez gain, bada besterik: hormigoia egiteko bi zentral, eta karea egiteko beste bi.

Edozein harrobitan egiten diren leherketen ondorioz sortzen den zaratak eta hautsak izan dezakeen eraginaz gain, Kobatekoak badu berezitasunik: Leze Txiki etab. inguruan edukitzeak egiten den lana kontu handiz egitera behartzen ditu alde batetik; bestetik, Kobate erreka ia harrobian bertan dagoenez, kutsadura sortzeko arriskua. Harrobiak ezezik, haraino



San Josepeko harrobia.

daraman bideak esames ugari sortu izan du. Izan ere, Garagartza erdi-erditik pasatzen dira Kobatera joaten diren kamioiak. Juan Antonio Urdangarinen, Udaltxeko hirigintza teknikariaren berbetan, hiru hilabeteko epea du Kobateko harrobiak Garagartzako igarobidea egiteko. "Udalak ez du ardurazuzenik igarobide horretan, Diputazioa eta harrobiaren arteko kontua da. Dena den, herriko arazoa den neurrian konponbidea bultzatzen saiatu gara. Orain arte egon gara pentsatuz tramiteak luzatzen ari zirela, eta harrobiaren jabetza aldatu denean konturatu gara arazoa dirua zela".

Ustiapena bukatzen denean, Kobateri lur-zoru industrial kalifikazioa egingo zaio.

**Itxita dauden harrobien lekukotasunak adierazten du herri nonen historiaren uneren baten, harrobi lanak egin zuela bere tokia.**

### SAN JOSEPE

San Joseperi 8 urteko epea geratzen zaio itxi aurretik, orduan bukatuko da eta bere ustiapen epea. Behin ixten denean, lur-zoru industrial moduan kalifikatuko da. Ordu arte, alde batetik harria ateratzen jarraituko dute, eta bestetik hormigoia egiten.


40 urte inguru dira harrobi hau zabaldu zela. Harrobian dabiltzan bederatz langileek 250.000 tona inguru ateratzen dituzte urtero, leherketa bidez jakina. Leherketak, asko jota hilean behin egiten direla dio Jeni Martinezek, harrobiko zuzendariak. "Beti arratsalde egiten ditugu eta erabat kontrolatutakoak izaten dira. Neurketa guztietan azpitik gabiltza". San Josepeko zuzendariak ez du inongo eragozpenik harrobian egiten den lana azaltzeko. "Hemen edo han harrobiok beti gaude ageri-agerian. Hau beste lan baten modukoa da, zarata eta hautsa ateratzen da eta zentzu horretan kaltegarria izan daiteke, baina besterik ez. Gainera, kontuan hartu behar da kontrol handia pasa behar dugula, eta gura edo ez gura, eskaera bati erantzuten gaudela. Geuk dugu interes gehien honek ondo funtziona dezan".

Errepide ondoan dagoenez eta bista bistan, ingurugiroan bistarako eragin handikoa dela esan behar, landaretzarik ez dagoenez mendia janda ikusten delako. Behin ixten denean lur-zoru industrial kalifikazioa jasoko du San Josepek, edozein motako industriari bidea irekiz.

### IHARDUERA KONTROLATUA

Aipatutako hiru harrobitan era beretsuan egiten da lana: haitza zulatzen da, harria ateratzeko leherketak egiten dira, eskabadoreen bidez kamioietara eramaten da, zantzaileak txikitzen da eta gero sailkatu egiten da: hormigoitarako, karea egiteko,





Harrobi lanaz gain, hormigoia egiteko zentroak daude Arrasateko harrobietan.

edo dagoen moduan obretara saltzeko.

Argi dagoenez, eskaera dagoelako egiten da lana harrobietan, bestela ez litzateke egingo. Hala ere, iharduera hori ez dago batere ondo ikusita, eta behin baino gehiagotan ekologisten salaketen parte izan dira harrobiak. Juan Antonio Urdangarinen ustez une honetan harrobien gaineko kontrol zehatza eramaten da. "Jaurlaritzak darama harrobien kontrola eta era oso zehatzean, araudia beteko ez balute, ez lukete lehergailurik ere lortuko. Ingurunean duten eragina? Beno, argi dago nolabaitekoa badutela, neurri batean mendia jan egiten dute eta. San Josepe bista bistan dago; Kanpanzar erdi-ezkutuan dagoenez ez da hain nabarmena; Kobaten aztarnategiak eta erreka hor daudenez kontuz ibili beharra dago. Dena den, uraren asuntza denek daukate, kareharria egonda lur azpiko urak egon daitezke eta hor sortu daitezke ku-

tsadura".

Hiru harrobik dihardute lanean orain eta aurrera begira ez du ematen gehiago zabalduko denik, hori dio behintzat Jeni Martinezek, San Josepeko arduradunak. "Joera nagusia harro-

bi kopurua gutxitu eta handietan biltzekoa da. Kontuan hartu behar da gainera hemen kompetentzia gogorra dagoela, eta hiru harrobi egonda ausardia handia beharko litzateke berriren bat zabaltzeko".

Argitasun bat: artikulua idatzi aurretik, harremanetan jarri ginen harrobietako arduradunekin. Kanpanzar eta Kobateko arduradunak, berba egiteko gonbidapenari uko egin zion, esanez harrobien gaia gizarteak orohar ez duela oso ondo ikusten eta berak nahiago zuela informazio zuzenik ez ematea. Beraz, aipatutako bi kanterei buruz idatzitakoa zeharkako bideetatik jasotakoa da; San Josepekoa, berriz, harrobien bertan. ■

## Kobateren eragina Garagartzan

**H**arrobiak berez ez du arazo gehiegi sortzen, zarata apur bat, batez ere gauzez egiten badituzte leherketak eta ondorioz sortzen den hautsaz. Momentuz hautsa ez da arazo handia pinadiak eutsi egiten diote eta. Noizbait botatzen badira sortuko dute arazoren bat.

Arazo larriena kamioiena da. Asko pasatzen dira egunean zehar, hautsa, zuloak eta arriskua sortuz dabilozan abiadaren ondorioz.

Geldirik dagoen obra batek konponduko luke kamioien arazoa. Dugun informazioaren arabera Udala eta harrobiaren artean konpon ezinagatik dago geldirik. Diotenez Udalak nahi du harrobiak Udalarari berari dagokion obra bat egitea (Aramaioko bidearen lotura zubitik). Harrobiko arduradunek lehen bailehen egin nahi dute bidea (urte bukaeran amaitzen ei da epea) eta diotenez 15-20 egun besterik ez litzukete behar horretarako.

**Alejandro Mendizabal,**  
Garagartzeko auzo alkatea

**Beñardo Kortabarria**

Beti Onako Aerobic monitorea

## GOIHURI LAZKANO

*"Donostiako Aerobitona izango da burrengo helburu"*

— Portugaleten burututako Aerobic txapelketan hamar lehenen artean sailkatu zinen, gogorra izan zen?

— Oso gogorra, kontuan mugimendu asko izan behar dira ez da nahikoa fisikoki ondo egotea. 600 pertsona inguru elkartu ginen eta ezarrita zeuden koreografiak jarraitu behar genituen, nik hiru ordu térdi iraun nuen.

— Zenbat ordu ematen dituzu?

— Egunero bi ordu eta klaseak gainezka daude. Horrela jarraituz gero ordu gehiago jarri beharko ditugu.

— Egunero zenbat entrenatzen duzu gimnasioan?

— Guztira hiru ordu, bi klaseak ematen eta beste bat nire kontura. Batzutan klaseak prestatzen ibiltzen naiz edo pesak egiten. Besoetan indarra hartzeko beharrezkoa da pesak egitea.


— Arrasaten Aerobic-zale asko dago?

— Mordoa eta maila handikoak gainera.

— Zer behar da Aerobic monitorea izateko?

— Aerobica egite-

ko ez da ezaugarri berezirik behar baina monitorea izateko bai. Ikastaroa gogorra da, konstantzia asko izan behar duzu, prestakuntza fisikoa ona.



## FUTBOLA Ostiralean derbia



Preferente mailako Mondrak eta Bergarak elkarren kontra neurtuko dituzte indarrak ostiralean arratsaldeko 3.30etan Bergarako Agorrosin futbol zelaian. Mondrak etxean jokotutako partiduetatik lehen porrota jaso zuen domekan Euskal Herriko Unibertsitatea taldearen aurrean. Galdutako puntu horiek eskuratzeke aukera ostiralean izango dute. Goio Arrietak zuzentzen duen taldea sailkapenari begira ez dago ondo kokatuta, 14 punturekin 16. tokian. Mondrak 21 puntu ditu eta zazpigarrena da. Derbia denez, lehia eta emozioa ziurtaturik daude, joku ona berriz, jokalarien esku egongo da. Jesus Mari Barrutia-bengoa entrenatzaileak ez du baja garrantzitsurik izango, eta baliteke Juan Luis Aranburuzabalak jokatzeko aukera izatea. Normaltasunez ari da entrenatzen eta usteak betetzen badira denboraldiko lehen partidua izan daiteke Aranburu aurrelariarentzat.

Mondrako emakumeek Azpeitiko Lagun Onak taldea izango dute aurkari ostiralean arratsaldeko 3.30etan. Neurketa Garmendipe futbol zelaian jokatu da. Mondrako taldeak azken partiduan lortutako garaipenari esker, 16 puntu ditu eta sailkapeneko seigarren tokian dago. Azpeitiko taldea goialdeko postuetan egoteaz gain, arriskutsua da batez ere aurkariaren areara heltzen denean. Mondrako emakumeek partidu ostean babajana izango dute eta babak gustora jateko garaipena izan daiteke botika onena.

## SASKIBALOA Urbina Maltzagak beste aukera bat zapatuan




Urbina Maltzagak azkenaldian joko aldetik aurrerapauso handia eman badu ere, emaitzetan ez da isladatzen. Oraindik neurketa bakarria irabazi du eta bederatzigaldu. Bigarren garaipena lortzeko beste aukera bat zapatuan izango du Iturripen. Urbina Maltzaga eta Mollet taldeak izango dira aurrez aurre arratsaldeko 6etatik aurrera. Bartzelonako taldeak hiru neurketa irabazi ditu eta 14 punturekin sailkapeneko 10. tokian dago. Arrasateko taldea azkena da baina hori ez da ozpoto izan behar puntuak eskuratzeke. Azken orduko bajarik ez badu, German Monge entrenatzaileak jokalaria guztiak izango ditu gertu.

## ESKUBALOA Berrito etxetik kanpo



Arrasate eskubaloi taldeak Sarria taldearen kontra neurtuko ditu indarrak zapatuan arratsaldeko 6etan Bartzelonan. Hauek ere puntu premia dute, sailkapenean gorantz egiteko eta era berean jokalariaik neurketak irabazteko gauza direla konfiantza hartzeko. Ibon Alzelai entrenatzailearen ustez taldeak ez du sinesen bere kalitatean eta horregatik galtzen dira partiduak azken unetan. Sarria hala ere ez da aurkari samurra izango, talde sendoa da eta horren lekuko sailkapenean betetzen duen bostgarren tokia.



Gipuzkoako txapelketan jaun eta jabe.

## Erik Martin lehena, Iker Zabarte bigarrena karate txapelketan

Erik Martinek eta Iker Zabartek Saioa taldeko karatekek Gipuzkoako txapelketan hartu zuten parte domekan Usurbilen. Erik junior mailan aritu zen, eta berarentzat maila horretan parte hartzen zuen lehen aldia izan arren, urrezko domina eskuratu zuen. Erik

gerriko beltza da eta iaz ere lehen postua eskuratu zuen kadete mailan. Iker Zabartek gerriko marroia du, kadetetan parte hartu eta bigarren postuan gelditu zen. Bi karateka bikain hauek urrezko eta zilarrrezko dominak ekarri dituzte Arrasatera.

## Anoetako pistan arrasatearrak bikain

Arrasate Atletiko Taldeak asteburuan eman zion hasiera denboraldiari Anoetako pistan. Arrasateko partaideak Gipuzkoako zein Euskadiko txapelketetan parte hartzeko gutxienezko denborak lortzen saiatu ziren. Lorentxo Avilak, Jose Ramon Petreñasek eta Gabi Saavedrak lasterketa bikaina burutuz denbora horiek lortu zituzten. Hala ere, beste ordezkari batzuk izan ziren. Hona hemen jasotako emaitzak:

- 60 metro**
- Lorenzo Avila 7" 37 ehuneneko
  - Bittor Rodriguez 7" 54 Ehuneneko
  - Mikel Arregi 7" 87
  - Raul Canales 7" 53
  - Martin Davila 7" 77

- 60 metro hezi**
- Remi Diosdado 10" 72 ehuneneko

- Pisu jaurtiketa**
- Oscar Gavilan 9' metro 86 zentimetro.

- 600 metro**
- Iñaki Juez - 1' 38"

- 300 metro, kadete emakumeak**
- Alazne Ruiz De Munain 48" 12 ehuneneko
  - Maitane Arizmendiarieta 48" 41 ehuneneko

- 800 metro**
- Gavi Saavedra 2'01
  - Oliver Fernandez 2' 10"
  - Jose Ramon Petreñas 2'03"
  - Martin Davila 2' 11"




## AUSARTU ZAITEZ!

Abenduaren 13an, Jostunen Egunean, Kataide Jatetxean temperatura igo egingo da.

- 9,30etan afaria.
- Afal ostean musika.
- 2etan strip-tease.

Izena emateko deitu Kataide Jatetxera. Anima zaitetz!!

Kataide poligonoa Tel: 79 60 10 • ARRASATE



**H**iru eguneko asteburu honetan Zaldibarko txapelketak ez du etenik izango. Ostegunetik domekara arte makha bat neurketa jokatuko da. Ostegunera partidu bakarra aurreratu da Danok lagun taldeko jokalariek kanpora joan nahi eta eskatu dutelako. Arratsaldeko 7etan aurrez aurre Orlando Piratas eta Danok lagun izango dira. Ostiralean eta zapatuan Zaldibarren bakarrik jokatuko da eta larunbatean Zaldibar eta Iturripen.

## Asteburu luzea Zaldibarren

### Laburrak

#### ■ ZIGORTUAK

Borroka'n Roll taldeko Lazkanok eta AC Surcos taldeko Okarizek bi partiduko zigorra bete beharko dute. Talde biek jokatutako partiduan iskanbila egon zen eta antolatzaileek zigor hori ezartzea erabaki dute.

#### ■ ANTOLATZAILEEN OHARRA

Goizean jokatzen duten taldeek eta arratsaldeko azkenek portierietako sareak jarri eta kendu behar dituzte nahi eta nahiez. Hemendik aurrera, lege hori betetzen ez duenak zigorra jasoko du.

#### ■ PARTIDU INTESGARRIAK

Astero bezala hiru neurketa azpimarratuko ditugu beste guztien artean: ostiralean Zaldibarren 12etan Sokoakoak eta Nuevo tabernak elkarren kontra neurtuko dituzte indarrak; 4etan Los Heredia eta Fosforos izango dira aurrez aurre, usteak betetzen badira partidu lehiatsua izan daiteke; zapatuan berriz Zaldibarren 6etan Txeyenex eta Sortu Informatika.

*Orain Aldibirekin  
etorkizuna gertuago.*

**NISSAN**

**Aldi//bi**

**ETORRI.  
EZ ZARA DAMUTUKO.**

Zigarrola, 1 • 1. pabilioia • ARRASATE • Tel.: 71 20 02

## Sailkapenak

A taldea	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irabaz.	Berd.	Gald.	Aldo	Aurk.	Guzt.
Betrayer	9	9	0	0	59	16	<b>18</b>
Irati STS	9	8	0	1	54	11	<b>16</b>
Galartza kont.	9	7	0	2	46	26	<b>14</b>
Pipwhis	9	7	0	2	39	29	<b>14</b>
Abinagraus	9	6	1	2	49	23	<b>13</b>
Aurrera Bolie	9	6	0	3	46	26	<b>12</b>
Lorategi Potroak	9	5	2	2	34	24	<b>12</b>
Arrogoi taberna	9	6	0	3	30	32	<b>11</b>
Ojo Avisore	9	5	1	3	43	29	<b>11</b>
DKB	9	4	3	2	31	21	<b>11</b>
Baneuko	9	4	2	3	22	26	<b>10</b>
Leya	9	4	0	5	32	46	<b>8</b>
Totem	9	3	1	5	36	36	<b>7</b>
Berango Sukald.	9	3	1	5	39	41	<b>7</b>
Me la pela	9	3	1	5	22	25	<b>7</b>
Potosorri	9	3	1	5	29	33	<b>7</b>
Onaniereng	9	3	1	5	14	38	<b>7</b>
Krskibalda	9	2	2	5	21	32	<b>6</b>
Alai gozokiak	9	1	2	6	16	48	<b>4</b>
Viboras	9	1	0	8	33	47	<b>2</b>
Kaxi Ganamos	9	0	0	9	3	29	<b>0</b>
Etxe Mobil	9	0	0	9	3	67	<b>0</b>

B taldea	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irabaz.	Berd.	Gald.	Aldo	Aurk.	Guzt.
Insert Coin	9	8	1	0	54	13	<b>17</b>
Cerveceria Leniz	9	8	0	1	57	12	<b>16</b>
Argi Ibili	9	8	0	1	74	20	<b>16</b>
Naranja Mecanica	9	8	0	1	58	17	<b>16</b>
Okoretegi	9	6	2	1	56	18	<b>14</b>
Ke Oxtias!!	9	5	2	2	35	27	<b>12</b>
Los Innombrables	9	4	3	2	38	30	<b>11</b>
Jotakabau	9	5	1	3	28	35	<b>11</b>
Motz	9	4	2	3	36	36	<b>10</b>
ZZPPW7	9	3	3	3	42	41	<b>9</b>
Pepelus	9	3	2	4	34	25	<b>8</b>
Los Heredia	9	4	0	5	31	31	<b>8</b>
La mosca gao	9	3	2	4	42	43	<b>8</b>
Sobred. de Txreira	9	4	0	5	29	40	<b>8</b>
Ganbelas	9	3	0	6	37	45	<b>6</b>
Diego Antonio	9	3	0	6	30	40	<b>6</b>
Fosforos	9	2	2	5	26	45	<b>6</b>
Perrahotsa	9	1	3	5	22	30	<b>5</b>
Gualtrapas	9	2	1	6	21	46	<b>5</b>
Kinder Konpresa	9	2	1	6	24	56	<b>5</b>
Elisabeth	9	0	1	8	14	76	<b>1</b>
Hapoel Jamon	9	0	0	9	10	72	<b>0</b>

D taldea	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irabaz.	Berd.	Gald.	Aldo	Aurk.	Guzt.
AC Surkos	9	8	0	1	81	22	<b>16</b>
MSM Ing. int.	9	8	0	1	49	21	<b>16</b>
Sortu Informatika	9	7	1	1	45	17	<b>15</b>
Nuevo taberna	9	6	2	1	52	22	<b>14</b>
Sokoakoak	9	6	1	2	61	31	<b>13</b>
Txeyenex	9	6	1	2	40	23	<b>13</b>
KK Jauriaritzari	9	6	1	2	36	33	<b>13</b>
Orlando Piratas	9	6	0	3	37	39	<b>12</b>
Bedarreta taberna	9	5	0	4	37	22	<b>10</b>
Los Dimy	9	5	0	4	40	37	<b>10</b>
Adelaida	9	4	1	4	28	34	<b>9</b>
Koka Juniors	9	3	2	4	38	36	<b>8</b>
Anbotoste KT	9	4	0	5	22	27	<b>8</b>
Danok Lagun	9	3	2	4	23	33	<b>8</b>
Lauterbrunnen	9	3	0	6	25	42	<b>6</b>
Tronkoteak	9	3	0	6	21	40	<b>6</b>
Borrock'n roll	9	2	0	7	48	53	<b>4</b>
Cartonajes Igamo	9	1	2	6	20	33	<b>4</b>
Bukanak	9	2	0	7	24	50	<b>4</b>
Hirei	9	2	0	7	23	52	<b>4</b>
Rotor de Bolbogr.	9	1	1	7	7	42	<b>3</b>
Iluna taberna	9	1	0	8	28	76	<b>2</b>



**GOLA BAI ALA EZ?** Ojo Avisore eta Alai Gozokia izan ziren nor baino nor domekan Zaldibarren. Partidua bizia eta gol askokoa izan zen. Golak dena dela ondo banatu ziren talde bien artean eta ez haserretzeko bakoitzak lau jaso zituen. Berdinketarekin aurpegi txarrik ez!

## Emaizak

- A taldea**
- Irati STS 8 - Kriskibalda 1
  - Lorategi Potroak 5 - Arrogoi taberna 2
  - Alai Gozokiak 4 - Ojo Avisore 4
  - Aurrera Bolie 3 - Betrayer 5
  - Baneuko 2 - Abinagraus 2
  - Berango Sukaldeak 12 - Leya 6
  - Galartza Kontenedoreak 7 - Potosorri 4
  - Etxe Mobil 0 - DKB 5
  - Viboras 5 - Pipwhis 6
  - Totem 5 - Onaniereng 0
  - Me la Pela - Kaxi Ganamos 1

- B taldea**
- Motz 2 - Insert Coin 7
  - ZZPPW7 3 - Ganbelas 8
  - Los Innombrables 3 - Ke Oxtias 4
  - Kinder Konpresa 1 - Argi Ibilii 15
  - Sobredosis de Txreira 4 - Okoretegi 3
  - La Mosca Gao 7 - Jotakabau 4
  - Diego Antonio - Cerveceria Leintz 6
  - Hapoel Jamon 0 - Naranja Mecanica 5
  - Fosforos 2 - Pepelus 7
  - Elisabeth 1 - Los Heredia 11
  - Perrahotsa 3 - Gualtrapas 4

- D taldea**
- Danok Lagun 1 - Bedarreta Taberna 7
  - Cartonajes Igamo 3 - Orlando Piratas 4
  - MSM Ing Integral 11 - Iluna Taberna 4
  - Nuevo Taberna 8 - Lauterbrunnen 2
  - Koka Junior 1 - Sokoakoak 6
  - Sortu Inform. 1 - Rotor de Bolbogrado 0
  - Anbotoste 1 - Txeyenex 4
  - Borrock Roll 4 - AC Surcos 7
  - Los Dimy 2 - KK Jauriaritzari 3
  - Hirei 1 - Adelaida Aldibi 4
  - Bukanak 3 - Tronkoteak 5

## Hurrengo partiduak

- 9. ihardunaldia**  
**Abenduak 5, osteguna**  
**Zaldibar**  
 17.00 Orlando Piratas - Danok Lagun
- Abenduak 6, Ostirala**  
**Zaldibar**  
 8.50 Potosorri - Berango Sukaldeak  
 10.00 Argi Ibilii - Innombrables  
 11.00 Insert Coin - Perrahotsa  
 12.00 Sokoakoak - Nuevo Taberna  
 13.00 Arrogoi Taberna - Irati STS  
 14.00 Tronkoteak - Hirei  
 15.00 Okoretegi - Kinder Konpresa  
 16.00 LOs Heredia - Fosforos

- 17.00 Kriskibalda - Me la Pela  
 18.00 Ganbelas - Motz  
 19.00 Bedarreta taberna - Bukanak

- Abenduak 7, Larunbata**  
**Zaldibar**  
 8.50 Ojo Avisore - Lorategi Potroak  
 10.00 Jotakabau - Sobredosis de Txreira  
 11.00 Gualtrapas - Elisabet  
 12.00 Betrayer - Alai Gozokiak  
 13.00 Pepelus - Hapoel Jamon  
 14.00 Iluna Taberna - Cartonajes Igamo  
 15.00 Abinagraus - Aurrera Bolie  
 16.00 Cerveceria Leintz - La mosca Gao

- 17.00 Ke Oxtias - ZZPPW7  
 18.00 Txeyenex - Sortu Informatika  
 19.00 Naranja Mecanica - Diego Antonio

- Iturripe A**  
 14.00 Lauterbrunnen - MSM Ing  
 15.00 Leya - Baneuko  
 16.00 Adelaida - Los Dimy

- Abenduak 8, Igandea**  
 8.50 DKB - Galartza Kontenedoreak  
 10.00 AC Surcos - Anbotoste  
 11.00 Pipwhis - Etxe Mobil  
 12.00 KK Jauriaritzari - Borrock Roll  
 13.00 Onaniereng - Viboras

# San Nicolas, bolo-boloaren eguna

**S**an Nicolas coronado, arzobispo Mari Andrés, a la luna noche y día...” ... lehen estrofa honek bat baino gehiagoren umetako oroitzenak esnatuko ditu; izan ere, nor ez da ibili San Nicolas egunean diru eta goxoki eskean kalez kale?

Aintzinako ohitura den honek oraindik badu jarraipenik Arrasaten, jakina, umeen artean, eurak baitira balkoietatik behera botatako goxoki, gaztaina, intxaur eta txanponak jasotzearen bulzakadak eta bestelako minak jasaten dituztenak.

Santu guztiak bezala, San Nikolasek badu umeekin lotutako istoriotxo bat: San Nicolas Myra-ko Gotzaia ei zen III. mendean eta mirari bat egin zuela esaten da. Harakin batek



Goxoki, intxaur eta goxokitan, 80.000 pta bota dira gaur Udaletxetik.

jateko hil zituen hiru ume berpiztu ei zituen Myra-ko gotzaiak eta horregatik, Seguran eta Legazpin mutikotxo batek San Nikolas egunean gotzai jantzia jartzen du.

Arrasateko aintzinako San Nikolas egunerako joanaz gero, 1911. urtean ospakizun desberdina zela esan behar. Mutikoak eskuetan lastozko sorta bana zutela, kanposantu aurre-

ra joaten ziren. Hilerrir aurrean “Pater Noster” bat errezatzen zuten eta gero herrira abiatzen ziren oiheri artean. Herrira iristen zirenean, etxe aberatsen aurrean kantatzen zuten:

*“San Nikolas coronado  
arzobispo Mari Andrés  
a la luna noche y día  
etxeke andre noblia  
egizu, egizu pilia  
San Nikolas triskili trás  
dame una castaña y no quiero  
más...”*

Gaur ere, Udalak hainbat kilo goxoki, intxaur eta gaztaina bota du balkoietatik behera eguerdian. Azken 3 urteetan bezala, 80.000 pta. gastatu ditu Udalak San Nikolas eguneko bolo-boloan.



LEIHO ISOLATZAILEAK



Bezeroarekin zerbitzu zuzena



Kalitatezko muntaiak

**Irtenbide  
aproposena!**









(I+D) Ikerketa eta garapena



Fabrika Zentrala

- Kalitatea
- Prezioa
- Zerbitzua
- Garantia



# Neguko aurrezpen-bildumaren aurkezpena

175.000 pta. 3 hilabetera.  
100.000 pta. 6 hilabetera.



## Pelutxezko hartza

Tamaina handiko eta adats fineko  
Pelutxe Hartz bat, etxe txikiarentzat.



Euskarri desmuntakorra duen kazola.

175.000 pta. 6 hilabetera.  
100.000 pta. 12 hilabetera.



## Vitroflam tresneria

Bitrozeramika, mikrouhin eta  
labearentzat bereziak.



350.000 pta. 6 hilabetera.  
175.000 pta. 12 hilabetera.

## Fagor tresneria

Altzairu herdoilgaitzezkoa 18/10  
Urre koloreko euskarriak.  
Indukziozko sukaldeentzat aproposa.

## Hiru artikuluak

600.000 pta. 6 hilabetera.  
300.000 pta. 12 hilabetera.



CAJA LABORAL  
EUSKADIKO KUTXA





## BERGARA PIEL

- Gizonentzat Nobuc-ezko txaketoia .....39.900 pta.
- Pecari berokiak.....39.900 pta.
- Emakumeentzat ilez forratutako txaketa .....48.900 pta.
- Emakumeentzat gerrikodun larruzko txaketak .....34.900 pta.

*Guzti hau eta gehiago Bergara Piel-en aurkituko duzu. ZATOZ!! Kalitate-prezio erlazio hobereana daukagu!*

Espaloia, 6 • BERGARA  
Tel.: 76 20 70



## PARDO estetika zentroa

- **DEPILAZIO PROGRESIBOA**
- **DEPILAZIOA ARGIZARI HOTZ ETA BEROAREKIN**
- **SOLARIUMA (DUTXAREKIN)**
- **SENDAGILE-DIETISTAREN KONTSULTA**  
Dieta pertsonalizatuak, medikuaren kontrol eta aholkuarekin.

- **AURPEGI ETA GORPUTZERAKO TRATAMENDUAK**

Drainaketa linfatikoa.  
Erreafirmatzailea.  
Elektroeskultura eta ultrasoinuak.  
Antizeluliti murriztailea.  
Mantenimendua.

## DEPILAZIO ELEKTRIKOA, BEHIN BETIRAKOA

Iparragirre enparantza, 4 behea. Grupo San Juan  
Tel.: 79 52 17 • ARRASATE



- **Blend metodoa**
- **Sonda metodoa, minik gabekoa.**



## MERTXE PLAZAOLA

# “Sariak baino, ilusio gehiago egiten dit jendea eskaparateari begira geratzeak”

Mertxe Plazaola Ehune dekorazio dendakoa da. Iaz Santamasetako eskaparate lehiaketa irabazi zuen eta aurten ere eman du izena parte hartzeko. Bere ustez, Arrasateko dendariak gero eta arreta handiagoa jartzen dute eskaparateen dekorazioan baina askotan konposizioan hutsegiten dute.

— Zenbaterainoko garrantzia du denda bateko eskaparateak?

— Oso handia, benetan. Bezeroak dendan sartu baino lehen eskaparatea begiratzen du eta horrela denda barruan aurkitu dezakeenaren ideia bat egiten du. Eskaparatea dendaren islada da.

— Arrasaten eskaparate politik jartzen dira?

— Bai, geroz eta politagoak. — Normala da, konpetentzia sortzen da eta.

— Eskaparate politik jartzeko ikasi egin behar da edo gusto ona izan?

— Eskaparatismo teknika batzuk izango dira, baina eskola gutxi dago oraindik. Horrek norbera hobetzeraz eramaten gaitu eta dendako eskaparate apaintzen dugun gehienok autodiakta gara. Badira eskaparata bat kontratatzen duten dendariak baina nik pertsonalki ez nuke kontratatuko, nik neuk dakit bakarrik eskaparatean zer eta nola jarri, oso gauza pertsonala da.

— Igartzen duzu jendea eskaparate aurrean geratzen dena?

— Bai, eta batez ere gazteak eta umeak. Horregatik Gabonen inguruan saiatzen naiz ahalik eta goxoen ipintzen, apur bat umeengan pentsatuz.



Eurak ez dira dekorazio elementuetan fijasen baina bai eskaparatearen konposizioan. Eskaparate sari batek baino, ilusio gehiago egiten dit jendea begira geratzen dela ikusteak.

— Zein da eskaparateetan egiten den hutsegiterik arruntena?

— Eskaparateko elementuen konposaketa txarra. Askotan izkina bat oso ondo jarri baina gero beste guztia ahaztu egiten da, hutsuneak uzten dira, denda ikusten da atzean... Iluminazioa oso garrantzitsua da.

— Gauza gehiegi jartzea ere ez da ona izango, ez?

— Ez baina normala da dendari batek barruan duen guztia eskaparatean erakutsi nahi izana eta horregatik, batzutan, erru horretan erortzen dira asko. Eskaparatistek berriz, eskaparatismoa egiten dute: oso modu politean baina gauza gutxi jartzen dute.

— Aurtengo Santamas Eskaparate Lehiaketa irabazteko asmorik?

— Ikusiko dugu, izena behintzat eman dugu, baita Gipuzkoako lehiaketan ere.

## aste gazte

## ■ BEKAK

• 97-98 ikasturtean eta 98ko udan atzerrian ikasteko beka deialdia martxan da. Eskariak aurkezteko, epe ezberdinak daude: Britainia Handia, abenduak 30; Austria, urtarrilak 3; Belgika, urtarrilak 16; Irlanda, urtarrilak 29; Portugal, urtarrilak 30; Errusia, otsailak 20; Frantzia, martxoak 10; Alemania, martxoak 14...

## ■ LANA

• Durangoko Udalak, biolin maisu bat behar du. Eskariak luzatzeko epea, abenduak 11.

• Oretetako udalak, hiri babeserako Teknikari lanpostua betetzeko epea zabaldu du, abenduak 12a arte.

• Igantziko (Nafarroa) udalak, administrari laguntzaile baten beharra du. Epea: abenduak 20.

## ■ IKASTAROA

• Donostiako Urtxintxa Aisialdiko Hezitzaileen Eskolak, ingurugiro heziketa ikastaro bat antolatu du, haur eta helduekin mendian ibiltzen direnei edo ibili nahi dutenei zuzendua. Izena emateko epea: abenduak 11.

## ■ LEHIAKETAK

• Arabako Kultura eta Euskara sailak “Blas Arratibel 1996” Artisautza Lehiaketa antolatu du. Bertan, Euskal Autonomia Elkartearen eta Nafarroa errolatutako artisauak har dezakete parte. Lanak aurkezteko epea: abenduak 18.

• Zarauzko udalak, herriko itsas paseorako Eskultura Saria plazaratu du. Lanen gaia librea izango da. Epea: urtarrilak 7.

Informazio gehiagorako:

GAZTE ZERBITZUA

☎ 77 00 65

## Abian dago Santamas Eskaparate Lehiaketa eta abenduaren 22an erabakia jakingo da

**MAITE ARIZAGA** (BIDASOALDEKO EMAKUMEAK TALDEKOA)

# “Berriz ere alardeetan”

**E**kainaren 30ean Iru-  
nen eta Irailaren 8an  
Hondarribin izandako  
alardeetan Bidasoal-  
deko Emakume Taldekoek  
izan zuten partaidetzaren  
ondorioz, polemika sortu zen.  
Ohiturek bere hortan jarrai-  
tu behar dute edo gaur egun-  
go egoerara moldatu behar  
dira? Bidasoaldeko Emaku-  
meak bigarren aukeraren alde  
daude eta ez dute jasan zituz-  
ten erasoengatik jarritako  
salaketak bertan behera uzte-  
ko asmorik. Mehatxuak jaso  
badituzte ere, arazoa kon-  
pontzen ez bada hurrengo alar-  
deetan aterako direla esaten  
du Maite Arizagak, Honder-  
ribikoan atera zenetako  
batek.

— Jarri dituzuen salake-  
tetan zer leporatzen diezue  
inplikaturakoei?

— Esan behar da salake-

tak Hondarrabiko alardean  
gertatutakoagatik direla, Irun-  
goan ez zen agresiorik gerta-  
tu eta. Hasieran jarri genituen  
salaketak pertsona konkre-  
tuen aurkakoak ziren, kolpa-  
tutako emakume batzuk bage-  
nekielako zeintzuk kolpatu  
gintuzten, beraz, horien kon-  
trako salaketa agresioan da-  
tza. Beste multzo bat euren  
jarrera probokatzailagatik  
salatu dugu. Salaketa perso-  
nalak aurrera doaz, baita bes-  
teak ere. Guztira 9 edo 10 gizon  
deitu dituzte deklaratzeko.

— Zein jarrera hartu dute  
salatutako gizonak?

— Oso txarra, ez dute  
onartzen. Gainera  
personalki esa-  
ten digute  
negozia-  
tzea nahi  
badugu  
salake-  
t a k

kendu beharko ditugula. Guk  
esaten diegu ez dugula egin-  
go eta egin zutenaren ondo-  
rioak onartu beharko dituzte-

la orain. Txantaia egin nahi  
digute eta gainera badakigu ez  
dutela ezer aldatzeko asmo-  
rik. Gainera pentsatzen dugu  
alardeko juntak ez direla inor  
gure partaidetza erabakitze-  
ko. Horren ardura udal-batzarrak  
du.

— Alardera irten baino  
lehen ez zenuten gaia udal-  
batzarrera eraman?

— Bai. Galdera luzatu  
genien alderdi politikoei. EAJk  
alardeko juntak esaten zute-  
na onartzen zutela esan zigun,  
hau da, gure partaidetzaren  
aurka zegoen; EAK gau-  
za bera eta HB gure

“Esaten digute negoziatzea  
nahi badugu salaketak kendu  
beharko ditugula. Guk esaten  
diegu egin zutenaren ondorioak  
onartu behar dituztela orain”

# parte hartuko dugu”

alde zegoen. PSOEk ez zuen erantzun eta PPK galdera jaso ere ez zuen egin.

## — Noiz aterako dira salaketak sententziak?

— Ez dakigu baina bitartean herri-ekimen bat eramango dugu aurrera. Pentsatu genuen tristeza zela arazoa epaitegietan salaketak jartzera mugatzea eta erabaki genuen zerbait zabalagoa egitea. Herri-ekimenetan edonork har dezake parte, ados ez daudenek ere.

— Salaketak jarri dituzuen emakumeen aurka paskin batzuk atera dira. Zer diote?

— Hauek bigarrenak dira. Irailean irtendakoak esaten zuten *que sois unas*

*progres euskaldunes de mierda* eta sartzen ziren hainbat jenderen izenak, lanbideak, helbide eta telefonoak adieraziz. Bigarrenak urrian atera ziren. Zergatik? Salatutako gizonak epaitegira joan zirenean emakume kontzentrazio batekin topo egin eta hura ez zitzaielako gustatu. Euren erreakzioa gure izenekin zerrenda bat ateratzea izan zen. Gure jaioterriak adierazten zituzten eta horrela argudiatzen zuten gu ez garela hondarribitarrak eta

hondarribitarrek ez luketela sekula horrelakorik egingo. Hori gezurra zen, alardean atera ginen mordoska bat hondarribitarrak garelako.

## — Aurrera begira nola ikusten duzue gaia?

— Gu alardeko juntekin hitzeginen ari gara baina heldu zaizkigun zurrumurruek diotenez, posturak erabat okertuta daude. Esperantza gutxi daukagu. Dena dela, ezin dugu atzera egin. Alarde egunak heltzen direnean arazoa konpondu ez bada, berriro aterako gara. Minoria gara, baina minoriek ere eskubideak dituzte.

— Zuen partaidetzaren aurka dagoen emakumerik izango da ere, ez?

— Bai, baita gazteak ere. Anali

si bat egin ondoren oso fibra fin bat ukitu dugula esaten genuen. Gizonezkoei dagokionez, uste dugu eurak zeozer berezia sentitzen direla alardearen egunean eta gu sartzean tokiz kanpo utzi ditugula. Emakumei dagokionez, uste dugu, gustora sentitzen direla euren ohiko pape rarekin eta gure partaidetzaz familiaren zentzua apurtzen dugula uste dute. Neska gazteak berriz gure aurka daude kantinera irtetzeko aukera dutelako eta gure alde jartzen badira aukera hori galduko dutelako.

## — Zer dago guzti honen atzean?

— Matxismoa akaso. Askorendako hondarribitarren sena alardearen inguruan dago eta esaten dute alardearen zentzua sentitu ahal izateko hondarribitarra izan beharra dagoela. ■

“Neska gazteak gure aurka daude kantinera irtetzeko aukera dutelako. Gure alde jartzen badira aukera hori galduko dute”



# URONDO

## Elektrizitatea

- \* Elektragaiak
- \* Instalazioak
- \* Automatismoak

- \* Proiektuak
- \* Argiztapena
- \* Bobinaketak

Musakola auzoa, 26. Kataide Industrialdea 5. Pabiloia. 214 postakutxa • ARRASATE  
Tel.: 79 78 15 / 77 10 42 Faxa: 77 14 76

## ETXEBIZITZAK

### 1. Saldu

- Musakolako Nao de Santiago kalean etxebizitza salgai. Tel.: 79 56 20.

### 2. Erosi

- Pisu merke bat erosiko nuke Arrasaten. Erguinen edo erdialdetik gertu. Tel.: 79 39 92.

### 3. Errentan emateko

- Ikasleendako pisua alokatzen da Ferixalekuan. Tel.: 79 12 20.

- Guztiz jantzita dagoen pisua alokatzen da Aldain. Tel.: 79 24 21.

### 5. Etxe konpartituak

- Lagun bat behar da Eskolatik gertu dagoen pisua osatzeko. Urtarriletik aurrera. Tel.: 77 14 26.

## GARAJEAK

### 7. Saldu

- Roneoko etxeetan garaje bikoitza eta itxia salgai. Tel.: 79 14 66.

### 9. Errentan emateko

- Larrea aldean garaje itxia alokatzen da. Tel.: 79 69 41.

- Maala kalean garaje itxia alokagai. Tel.: 79 42 13.

## LOKALAK

### 12. Saldu

- Kontsulta amankomuna egiteko lokala salgai. Tel.: 79 06 82 eta 79 46 20.

### 14. Errentan emateko

- Martxan doan harategia eskuz aldatzen da. Tel.: 79 28 01.

### 15. Errentan hartzeko

- Biltegi moduan erabiltzeko 100 m<sup>2</sup>ko lokal baten bila gabiltza. Kamioi bat sartzeko modukoa izan behar du. Tel.: 77 10 50. Jabi.

## ETXEBIZITZAK

1. Saldu
2. Erosi
3. Errentan emateko
4. Errentan hartzeko
5. Etxe konpartituak
6. Bestelakoak

## GARAJEAK

7. Saldu
8. Erosi
9. Errentan emateko
10. Errentan hartzeko
11. Bestelakoak

## LOKALAK/ORUBEAK

12. Saldu

13. Erosi
14. Errentan emateko
15. Errentan hartzeko
16. Bestelakoak

## LANA

17. Eskaintzak
18. Eskaerak
19. Bestelakoak

## IRAKASKUNTZA

20. Eskaintzak
21. Eskaerak
22. Bestelakoak

## MOTORRA

23. Saldu

24. Erosi
25. Bestelakoak

## DENETARIK

26. Saldu
27. Erosi
28. Trukatuak
29. Eman
30. Hartu
31. Galdu
32. Aurkitu
33. Bestelakoak

## HARREMANAK

34. Agurrak
35. Kontaktuak
36. Deialdiak
37. Bestelakoak



# 77 05 65

ARRASATE PRESS. Azoka, z/g. 20.500 (ARRASATE)

Sail honetan agertzen diren iragarkiak dohainekoak dira. Partikularren iragarkiak argitaratzen ditugu bakarrik. Arrasate Pressek ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzunkizunik. Asteazken eguerdia baino lehen deitu behar da iragarkia jartzeko.

## LANA

### 17. Eskaintzak

- Emakume gaztea tabernatan, etxea garbitzen edo umeak zaintzen hasteko gertu. Tel.: 79 67 30.

- Etxeko lanak egiteko neska prest. Tel.: 79 60 62. Mentxu.

- Esperientziadun neska kamarero lanak egin edo umeak zaintzeko gertu. Tel.: 79 76 27. Maite.

- Etxeko lanak egin edo umeak zaintzeko gertu. Tel.: 79 68 77. Ester.

- Titulodun eta esperientziadun neska klase partikularrak emango lituzke, DBHkoei nahiz BUPekoei. Klaseak erdaraz. Tel.: 79 79 84. Kontxi.

- Ingeleseko klase partikularrak emango nituzke. Tel.: 79 03 83.

- Fiseoterapeuta diplomaduna etxeko terapiak egiteko gertu: masaiak, erreabilitazioa, drenaje linfatikoa... Tel.: 79 56 86. Ane.

- Esperientziadun klinika laguntzaileak umeak edo helduak zainduko lituzke. Te.: 79 34 09. Amaia.

### 18. Eskaerak

- Emakume euskalduna behar da umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko. Dei egin arratsalde. Tel.: 79 71 34.

- Neska euskaldun gaztea behar da moda denda baten lan egiteko. Tel.: 79 81 82.

- Matematika irakatsiko didan irakasle partikularra behar dut. Ikasgaiak: algebra, analisisa, logika matematikoa eta matematika. Tel.: 79 77 59. Gaueko 10.30etatik aurrera. Fernando.

- Pertsona euskalduna behar da umea zaindu eta etxeko lanak egiteko. Tel.: 77 04 44.

## IRAKASKUNTZA

### 20. Eskaintzak

- Ingeles filologian diplomaduna klase partikularrak emateko gertu. Tel.: 79 59 16.

- Irakasle titulodunak lehen hezkuntzako eta DBHko klase partiku-

larrak emango lituzke. Tel.: 79 94 04. Mari Jose.

- EGA titulodun ikasle batek LH, DBH eta REMeko klase partikularrak emango lituzke. Dei egin 7etatik aurrera 79 43 56 telefonora.

### 21. Eskaerak

- Marrazki geometrikoko klase partikularrak hartuko nituzke. Tel.: 79 83 33.

## MOTORRA

### 23. Saldu

- Seat Malaga salgai, 98ra arte ITVa gaindituta dauka. 300.000 pta. Tel.: 79 78 10

## DENETARIK

### 26. Saldu

- Ordenadoreendako D7 West jokoak salgai. 6.500 pta. Interesatuak dei egin asteazken edo ostiraletan arratsaldeko 5etatik 7.30etara. Tel.: 79 68 85.

- Ezkontzeko soinekoa salgai. Taila: 40-42. Tel.: 79 55 28.

- 4x12 pulgadako Marshall bafea salgai. 1960ko modelokoa. 50.000 pta. Egoera onean dago. Tel.: 14 79 79. Joseba.

- 28 mm.ko objetiboa salgai. 8.000 pta. Tel.: 79 05 64.

- Sukaldea salgai. 10.000 pta. Dei egin denda orduetan 79 23 40 telefonora.

- Pinu egurrezko 10 ate salgai prezio onean. Tel.: 79 23 97. Rafael.

- Fagor markako kalentadorea eta berogailu japoniar bat salgai. Tel.: 79 81 25. Gaez dei egin.

### 27. Erosi

- Bigarren eskuko baxua eta aplikadorea erosiko nituzke. Tel.: 79 53 42. Jabi.


### 32. Aurkitu

- Azaroaren 16an Astore markako polo urdina topatu genuen Iturripen. Tel.: 79 91 22. Gaez.

~~La acería Marcial Ucín  
se va a Francia~~


~~LA ACERIA MARCIAL UCIN SE VA  
AL PAIS VASCO FRANCES~~

~~La acería Marcial Ucín  
se instala en Iparralde~~



## ■ Ignacio Lakunza Anton

### MONDRAGON ESKOLA POLITEKNIKOKO ZUZENDARI OROKORRA



**M**ondragon Eskola Politeknikoko Zuzendari Orokorra da 1988a geroztik. Injinerutza Industriala ikasi zuen Donostian, Nafarroako Unibertsitatean. 45 urte ditu, ezkontuta dago eta alaba bat dauka.

1. Zein da zure horoskopoa? Akuario.
2. Sinestuna zara? Bai, baina ez dut praktikatzen.

3. Animalia bihurtzekotan? Txoria.

4. Zure akats bat/gauza on bat?

Genio bizia/Inkonformismoa.

5. Zerk lotsarazten zaitu?

Emakumeek.

6. Amets bat?

Elkartasuna eta bakea.

7. Zer kenduko

zenuke mundutik?

Pobrezia eta ezjakintasuna.

8. Gertakizun historiko

bat? Frantziar

iraultza.

9. Nor miresten duzu?

Pio Baroja.

10. Zeri diozu beldurra?

Militarismoari.

11. Zertaz damutzen zara?

Ikasketak amaitu ondoren atzerrira joan ez izanaz.

12. Negar egin duzun azken aldia? Ez

dut gogoratzen.

13. Zer falta zaio Arrasateri?

Unibertsitate bat.

14. Eta zuri? Denbora.

15. Lanbidez aldatzekotan? Lantegi

baten lan egingo nuke.

16. Arrasateko gustoko toki bat?

Garagartza.

17. Zein da esan bai, baina azkenean

egin ez duzun gauza hori? Liburu gehiago irakurri.

18. Zein egunkari irakurtzen duzu?

Edozein.

19. Gustoko janari bat? Arraina.

20. Liburu on bat? Pio Barojaren *El árbol de la ciencia*

21. Filmerik onena/txarrena? Onenak Stanley Kubrick-en *Senderos de Gloria* eta John Ford-en *El hombre tranquilo*/ Ez dakit.

22. Musika talderik onena/txarrena?

Credence/Julio Iglesias.

23. Telebistako programarik

onena/txarrena? La Clave/Edozein konkurtso.

24. Egin dizuten oparirik politena?

Luma bat.

25. Denbora libre zertan pasatzen

duzu? Zikloturismoa egiten dut eta zinera sarri joaten naiz. Musika entzutea eta irakurtzea atsegin dut ere.

26. Oporretarako toki bat? Zelanda

Berria.

27. Etxeko lanik gorrotagarriena?

Ontziak garbitzea.

28. Gomendio bat? Koherentzia.

29. Zerbaitegatik emango zenuke

bitzita? Ezergatik.

30. 200 milio irabaziz gero? Bidaia

luze bat egingo nuke.

**ARRASATE  
HOTELA**



Biteri, 1 Tel.: 79 14 16  
ARRASATE

**Monte  
taberna**

Maalako arrabala, 11  
Tel.: 79 20 56

**"PAL"**

burdindegia,  
brikolage  
eta tresneria

Uribarri etorbidea, 3  
Tel.: 79 31 99 ARRASATE

**URRATS  
AHOLKULARITZA**

CARIBAI, 3  
Tel.: 79 87 74  
ARRASATE

**beatriz**

oinetakoak  
eta poltsak

Erdiko kale, 11  
Tel.: 79 14 33  
ARRASATE

**GORKA**  
ILEAPAINDEGIA

SOLARIUMA

Ferrerias, 35 ARRASATE  
Tel.: 77 13 78

MARIANO ANDRADE SIGANO

**TAXIA**

24 orduko zerbitzua  
Hotelak / Aireportua /  
Ospitaleak...

Tel.: 79 96 87 • Tfno mobilak: (907) 75 23 85  
Anboto, 2-4 ezk. ARRASATE

**ITSASKI  
ARRANDEGIA**

Arrain freskoa  
eta jaki izoztuak

Uribe Auzoa  
ARRASATE  
Tel.: 79 98 94



## Abendua

# Ospakizun hilean gaude

Errenta ordaintzea, hori abenduko egin-behar nagusia baserrietan. Uzta galtzeko arriskurik egon ez zedin Domu Santutik Domu Santura finkatzen zen errenta, eta ordainketa Santamasetan egiten zen. Gari sailen arabera izaten zen ordaindu beharrekoa. Errenta estali ahal izateko, Santamasetarako baserriarrek harategi-etara behiren bat edo txekorren bat saldu behar izaten zuten. Dirutan zati bat, kapoien bat edo oilaskorren bat, eta falta zena garitan ematen zitzaion uga-zabari.

Morroiairen irudiak ere garrantzia handia zuen sasoi bateko baserrietan. Urteko soldata jasotzen zuen abenduan; soldata eta makailau bat, Gabonetan etxera joaten zenean eramateko.

Santamasak, Gabonak... ospakizunak, eta

baserrietan sekulako ospakizuna txerri hiltzea izatenei zen. Bada horren gaineko esaera zahar bat: "Ezkondutako urtea eta txerria hiltzen zenekoa egunik onenak". Bixente Pagoagak gustora gogoratzen ditu sasoi bateko txerri hiltze haiek: "Txerria egunsentian hiltzen zen, goizeko bostak alde-ra. Hil eta segituan gibelajatera". Auzo bakoitzean betik ei zegoen espezialista txerri hilketetan, baserriaz baserri ibiltzen zena. Auzo-izaera beragaz egiten zen txerri-erregaloe etxe guztietara: odolosteak, txorizoak, solomoa etab. "Baserri denek egiten zuten; izan ere, orduan ez zegoen hotzgailurik eta horrela janaria ez zen alperrik galtzen, txerri".

Janari kontua irten denez, ezin Gabonak aipatu barik utzi, orduan aparteko zerbaite egiten zen eta. "Olio-aza, solomoa

piperrekin edo hegaztiren bat, horrelakoa izaten zen gutxi gorabehera Gabonetako kontua. Turroiak, mandarinak... nobedade itzelak izaten ziren orduan".

Ospakizunen gainean berba egiten ia joan zaigu hile honetako baserri lanen orrialdea, baina baserria beti baserri eta esan beharra dago lana ere beti egoten zela: "Garia ereitten bukatutakoan goldea erabili beharra zegoen auzolanean; erremintak prestatzen ziren; abar-metak biltzen ziren su-egurretarako eta laberako; fruita arbolak landatzeko sasoi onena zen; pastore etxeetan hariginan pasatzen zuten denbora asko, puntua egiten, norberak jantzi beharra zuelako; zatzak aztartzen ziren, gertu egon zitezten; Gabon egunetik aurrera arbia ateratzen hasten zen...". Argi dagoenez, lanik ez zen falta.

## Euskerien Txokoa

### ZORIONAK! irakurle hori

Baten baten eguna denean edo zozer ederra egin dauelako, ZORIONAK berba ebalten dogu beti. Beraz, ZORIONDU egiten dogu pertsona hori, eta honelakoak esaten ditugu:

- Zoriondu egizu amandrea, haren eguna da eta.
- Gaur aita eta ama zoriondu behar ditugu, ondo baino hobeto portatu die eta.
- (telefonoz irratian) "gaur gure alaba Karmen zoriondu nahi dut, bihar ezkonduko da eta"; "gure semea zoriondu nahi dut, gaur hementzi urte egin(bete) dau eta"....

Edozein modutan be, baten baten eguna, urtebetetzea edo urtemuga denean, ZORIONAK! ebalten dogu pertsona ha zoriontzeko. Eta honelakoak esaten ditugu:

*Zorionak!*

*Zorionak eta urte askotarako!*

*Zorionak zure urtebetetzean...!*

Baina zer gertaketan da orain?

"Eguna, urtebetetzea, urtemuga, urteak" ebaliz barik, "zorionak" ebalten hasi direla batzuk. Zorionak! zoriontzeko baino ez dogu ebaliz behar, eta ez izen moduan.

Eta txarto dago, "nire zorionak dira" esatea, "nire eguna, nire urtebetetzea, nire urtemuga da, edo nire urteak dira" esan beharrean.

Hemen, Arrasaten, eguna/egune esaten dogu:

- "Zeinen egune dok/n, ba?. Juantxoarena, 34 urte egin jok/n eta".

- "Zenbat urte egin dozu, ba?. hamalau urte egin dot".

(Gure partez, zorionak! eskutitza bidali doskun emakumeari.)

Eta esan gabe ez doie:

ZORIONAK! Arrasate Press eta Arrasate Telebista egiten dozuen guztioi, ARGIA saria jaso dozuelako: "zorionak eta urte askotarako".

**Karmelo Urbarren eta  
Joxe Ramon Agirreurreta**

**Etxe Aundi**  
*Hotela\*\* Jatetxea*



Torreauzo, 9  
Tfnok: 78 19 56 / 78 32 90  
OÑATI



*Gaur ez bada,  
bibar  
ezkonduko  
zara...  
Etxe Aundin  
zure zain  
gaituzu.*

# GINEKOLOGI KONTSULTATEGIA

- Minbiziaren diagnostiko goiztiarra
- Ekografia
- Mamografiak
- Bularreko patologiaren unitatea
- Menopausia
- Haurdunaldiaren kontrola
- Zitologiak
- Etab.

*Profesionalez osatutako taldea emakumearen zerbitzura*

**Doktoreak:**  
**CRISTOBAL  
ESTOMBA  
GOMEZ  
MURGIENDO  
OTALORA  
RUIZ**




**Zerkaosteta, 17 etxabehea. ARRASATE Tel.: 79 20 18**



# Ostegunean gaueko 9etan Alkatearekin Berbetan

**D**atorren ostegunean Xabier Zubizarreta ATBn egongo da berbetan. Mikel Irizarrek elkarrizketa egingo dio herriko hainbat gairen gainean. Alderdi politiko desberdinetako kideek luzatutako galderei ere erantzungo die Xabierrek. Ikusentzuleek ere izango dute aukera alkateari galderak luzatzeko. Horretarako ATBko telefonoa zabalik egongo da eta 77 06 90 zenbakira hots eginez egin ahal izango dira galderak. Alkatearekin Berbetan: Ikusi beharreko saioa herriari pultsoa hartzeko. Ostegunean 9.00etan Arrasate Telebistan.



## Arrasate Irratia

- EGUNERO**  
9.00 Albisteak  
9.30 Goizoro magazina: aktualitateari lotutako gaiak:  
14.30 Bixau orduan
- ASTELEHENA**  
22.00 Caravanserai musika saioa.
- ASTEARTEA**  
22.00 Euskal Festa saio berria. Bertako kultura protagonista
- ASTEAZKENA**  
22.00 KK2A
- OSTEGUNA**  
21.00 Adi Egon  
22.00 Txerrendantza
- OSTIRALA**  
22.00 KGB informatika saioa
- LARUNBATA**  
9.30 Jailarai umeendako saioa.  
11.00 Zoroklasikoak musika klasiko saioa.

## Kizkitza Cabada Lotsa Barik saioan

Kizkitza Cabada elkarriketatuko dute datorren asteartean Nereak eta Maierrek. Kizkitza ETBko Euskadi Irratia musika saioan aurkezle lanetan ibili zen. Hogeitabost urte ditu eta Pasai San Pedrokoa da.

### ■ ATBko asteko programazioa

6 Ostirala	9 Astelehena	10 Asteartea	11 Asteazkena	12 Osteguna	13 Ostirala
13.35 Kukaratxa Motel (Errep.) 20/20.30/21.00 Berriak 21.30 Astebete	13.35 Astebete (Errep.) 20/20.30/21.00 Berriak 21.30 Mondrasport	13.35 Mondrasport (Errep.) 20/20.30/21.00 Berriak 21.30 Lotsa Barik (Kizkitza Cabada)	13.35 Lotsa Barik (Errep.) 20/20.30/21.00 Berriak 21.30 Musika	13.35 Musika (Errep.) 19.10 Kukaratxa Motel 20/20.30/21.00 Berriak 21.00 Alkatearekin Bebetan	13.35 Alkatearekin Bebetan (errep.) 20/20.30/21.00 Berriak 21.30 Astebete



**B**errogeitamar urte atzera egin behar argazki honekin topo egiteko. Santa Lutzia eguna zen, eta egun horretan bildu ohi dira jostunak euren zaindariari goratzarre egiteko, argazkikoak

bezala.

Ezkerretik eskumara eta zutik, honako hauek dira gaurko protagonistak: Patricia Otaduy, Karmen Izurategi, Amaia Arregi, Bittori Gallastegi, Maria Uribesalgo, Primitiva Uribesalgo (jostunen irakaslea), Gregoria Uribesalgo, Maria Larre-

ategi, Esperanza Altube eta Arantza Gallastegi.

Makurtutakoak, berriz, beste hauek: Rita Gallastegi, Angelita Isazelaia, Juanito Garai (umea), Klarita Zeziaga, Milagros Zabalo, Matilde Huete. Ferixalekuan aterata dago argazkia.

Urtea: 1946

Argazkia: Sara Sagasta.

Informazioa: Sara Sagasta.

**KARLOS**  
Bitxitegia

Biteri kalea, 13  
ARRASATE  
Tel.: 79 34 26

Lehenengo urteurrena!

**Yoatz**  
oinetakoak

Barrenkale, 9  
Tfnoa: 76 22 86  
BERGARA

Biteri, 13  
Tfnoa: 79 21 71  
ARRASATE

**MILARION**  
Taberna-jatetxea  
Kafetegia

**Jostunen afaria**

Zuk prezioa jarri eta  
guk menua  
jarriko dizugu.  
Giro jatorra, musika  
ona eta txanpaina  
gure kontu.

# Jose Aranzabal

Iturriotz, 15

Tel.: 79 15 16



*Aitzindarien zaporea  
geroaren ikusmena*

## Jose Aranzabalena



*zerbitzuan kalitate  
eta traturik onena*

Bañez Dokorea, 2

Tel.: 79 18 92

E  
L  
E  
K  
T  
R  
A  
T  
R  
E  
S  
N  
A  
K

S  
U  
K  
A  
L  
D  
E  
  
A  
L  
T  
Z  
A  
R  
I  
A  
K

# Etor zaitez SOFA LEKŪra eta...

aukera ezazu

"EROSOTASUNAREN

500 modelo artean



"Eroso eseri zaitez"



**sofa**  
leku



Amuebladora  
Mondragonesa



a, eme... interiores